

Arrasate 1989ko Ekainak 23 28 zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



San Juanak, ondo igarotzeko garaia

Foto Imagen

San Juanak 89

Heldu da uda eta beronekin Euskal Herriko festa aroa. Gure herriak, beste herri askok bezala, San Juanak ditu festa nagusiak. Berauek arrakastatsu izan daitezten, aurten inoiz baino ahalegin handiagoa egin dute antolatzaileek. Ea, bada, festak denon gustokoak suertatzen diren eta bukatzean lanera itzuli beharrak gure gogoak ez dituen gehiegi tristatzen.

(San Juan kuadernilo berezia)

ORAIN ETA HEMEN

Tabernei buruzko arau berriak
Azkenengo plenoan, tabernen funtzionamenduari buruzko Araudi berria onartu zen. (11. or.)

ERREPORTAIA

Kutsadura Arrasaten
Gure herriko kutsadura-problema larrienak, aztergai. (16. or.)

ELKARRIZKETA

Enrike Alonso txirindularia
Poliki poliki, Enrike Mondragoeko kirol-idolo bihurtzen ari zaigu. (19. or.)

PODIUMA

Mirari Armendia
Aletazko Igeriketako Espainiako txapelduna, Abuztuan, beste bi arrasatear-ekin batera, SESB-eko Europako Txapelketan izango da (21. or.)

SAN JUANAK

San Juanak direla eta, 48 orriko aldizkaria ateratzeko esfortzua egin dugu. Erdiko orrietan jaei buruzko kuadernilo berezia duzue. Datorren astean, ostera, oporrak hartuko ditugu; beraz, Arrasate Press-ik ez da izango. Ondo pasau eta gutxi gastau!

JAI ZORIONTSUAK!!!



Arrasate
Kirolak

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorria	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulantiak	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak	798777

OSTIRALA 23

— Zinea: Alai: "Polstergeist III".
Novedades (Bergara): "Los gemelos golpean dos veces", 10,15etan.

— Goardiako farmazia:
Ruiz Torre, Ferrerías.

LARUNBATA 24

— Zinea: Alai: "Polstergeist III".
Novedades: "Moonwalker", 5, 7,30, 10,30.

— Goardiako farmazia:
Español, Iturrioz.

IGANDEA 25

— Zinea: Alai: "El principe de Zamunda".
Novedades: "Los gemelos golpean dos veces" 5, 7,30, 10,30.

— Gaztetxea eta insumisioaren astea:
Antzerkia: Amayan, 10etan,
Tunantes del Norte-ren
C.I.R.I.O.

— Goardiako farmazia:
Corcuera, Elcano.

ASTELEHENA 26

— Zinea: Alai: "El principe de Zamunda".
Novedades: "Los gemelos..." 7,30etan.

— Goardiako farmazia:
Irizar, Erguin.

ASTEARTEA 27

— Zinea: Alai: "El principe de Zamunda".

— Gaztetxe eta insumisioaren astea:

Mahaingurua eta proiektzioa, antimilitarismoaz: 7etan, Monterronen.

— Hitzaldi-proiektzioa:

Monterronen, 7etan, "650 Km. skiez Groenlandia zeharkatzeko".

— Goardiako farmazia:
Amezua, Santamaina.

ASTEAZKENA 28

— Gay eta lesbianen harrotasunaren eguna:
7etan, Sebero Altuben,
manifestazioa.

— Goardiako farmazia:
Ruiz, Maalako Errabala.

OSTEGUNA 29

— Bideo-Hitzaldia: Monterronen,
7,30etan, bideo-hitzaldia:
"Silvia ama a Raquel",
emakumeentzat bakarrik.

— Goardiako farmazia:
Morales, Iturrioz.

OSTIRALA 30

— Antzerkia: Monterron Aretuan,
7etan: Nake, Nake-ren
"El undecimo. no molestar".

— Antzerkia: Monterron Parkean,
10,30etan, Geroa-ren
"Grand Place".

— Goardiako farmazia:
Español, San Andres.

OHARRA: San Jaun jaietako programa osoa barruko orrialde berezietan.

ERAKUSKETAK

— Benito Zumalderen marrazkiak: 30 marrazki, karbontzilo eta plumilaz,
Arrasateko paisajeak. Abaroa, hilaren 25 arte.

— Pintura: VIII. toki ageriko pintura-lehiaketaren erakusketa. Monterronen, hilaren 25 arte.

— Yara Pagola: oleo eta akuarelak, Galeria 44ean. Uztailaren 15 arte.

— Material antimilitarista: pegatinak, txapak, etab. Ekainaren 26tik,
Uztailaren 2ra. Antolatzaileak: AGA, Kakitzat.

LEHIAKETAK

— Argazkia: AEDk antolatuta, gaia: Arrasateko jaiak. Sariak: 30.000, 30.000, 15.000. Epea: Azaroaren 1 arte.

BIDAIK

— Italiara: Uztailaren 1etik 12ra. Prezioa: 16.900 pta. Izenemateak: Gazteria Batzordean.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 3.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Abertzaleak, arriskutsuak omen?

Hambost bat urte dira Jon Juaristi ezagutu nuela, bistaz. Ordurako, bere joera naturalak garbi azaltzen zuen nondik nora zebilen eta zer espero genezakeen berarengandik. Egun asko eman da Euzkadiko agertokira azaldu zenetik eta ordutik bere papera betetzen aritu dela aitortu behar, azkenik helburu nagusienetakoa lortu duela azpimarratuz.

“Abertzaletasun guztiak dira arriskugarri eta lortezinak” esaeraz amai lezake Juaristi jaunak oraintsu arte bere ardatzaren inguruan ehunduriko sarea. Hain esatera biribila, noski, ongi antolaturiko oihartzun kutxa batetik jaurtiki zuen, gaitz guztietatik aske omen den irakasleak bere bamea lasai utzi ei zuelarik.

Beren eritzietan kaustikoak izan nahi duten pertsonaien zerrendak amaitezinak ditugu. Moeta guztieta-ko tententziek darakuskigute horixe dela, edozein arlotan argi desberdinez bereizteko biderik aukerakoentakoa. Desmarkea, edozein eratakoa, beti izan da plataforma egokia saltsa maltsetan bizi nahi duten ti-poentzat. Eta Juaristi irakasleak aspaldi hautatu zuen desmarkearen formula, bere burua preziorik hobereanean saldu ahal izateko.

Hala ere, kaustiko (bortitza, zorrotza, garratza...) izateak ez du adierazten, berez, egiaren jabetza.

Eta horixe da, ene eritiziz, Juaristiri gertatzen zaiona, ez dakit nongo izpiritu-graziaren izpiek bidea argitzen dioteneko ustetan dagoela, alegia. Bestela, ezin dezaket uler nola arraio konpontzen den euskal arloari dagokion zurrunbiloaren begian bertan beti egoteko. Eta, gainera, deskalifikazioko jarrera pairagabe batetatik. Literatura, irudigintza, zinea,... izan dira bere mamu beltzak; orain, ziur aski bere kontzientziaz pakean iharduteko psozialisten lerro erosoetatik, politika-geziak botatzen dizkigu.

Ez noa “El Correo Español”en Aula de Culturak Bilbon eta Gasteizen antolaturiko hitzaldietan, Jon Juaristik emandako mezuaren edukina aztertzeraz. Ez dugu lekurik. Bestalde, aldizkari apal honetatik ez nuke egunkari horren bitartez lorturiko oihartzun hedapena. Guk, gainera, euskaraz argitaratuko genuke, abertzale gara eta. Nolanahi ere, Juaristi saialariari zera azaldu nahi nioke, bere ustetan abertzaletasunean hain arriskutsu eta ameslari antzu garenok abertzale izaten nahiago dugula jarraitu, gure bizitza molde horretan bakarrik aurkitzen baitugu egokiera inperialismo deuseztatzaile, zapaltzaile, kamustaile eta arrotzari aurre egiteko.

Josemari Velez de Mendizabal

OSORIK

pub

Ignazio Zuloaga

KLINIKA DENTALA

DOHANEKO AURREKONTUA

- * Odontologia orokorra
- * Protesi finkoa
- * Protesi mugikorra
- * Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE



gili gili

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

**ALASA
ASEGURUAK**

Zeu ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Kaixo:

Gauzatxo bat besterik ez nuen esan nahi:

Ea noiz kenduko den trafiko-señal bat, Kontzezino ondoan hasten den Bergararako bide zaharraren hasieran dagoena, hain zuzen ere.

Kokoteraino gaude batzuk " Vergara, San Sebastián, eta Oñate " hitzak holan idatzita ikustean.

Mesedez.

I.B

Roneoko ELAn sinplekeriak nagusi

LABekook garbi utzi nahi duguna zera da: inor ez dugula akatu ixiltzeagatik. Berriz asuntuak nahasteko eta ezer ez esateko, mundua inguratzen zabiltzate ELAkoak. Ez dugu uste, aipatzen dituzuen pertsonai horiek zuen ahotan erabiliak izan nahiko zutenik. Zuen gorputz eta arimetatik oso urrun dagoelako benetako ASKATASUNAREN kontzeptua. Zuen jauntxuei lotuegiak zaudete eta berriro ere zuen hitza apurtuta (sekula politikan ez zinetela nahastuko) Martxoan Bilboko Manifestaldira deitu beharrean egon zineten. Eskuratzen dituzuen mesedeak, itzuli beharrean egoten bait zarete.

Azken idatziari ere izugarriko hasiera ematen diozue eta LABen aurka kristoren frogak agertu behar dituzuela dirudi. Baina, dena hitz hutsak, porrota besterik ez duzue azaltzen. Nahiz eta zuek mindu, aurreratzean ere LABek zuen azpikoak argituko ditu eta halaxe erakutsiko dizkie langileei Roneon LAB lanean hasi zenetik, azaldu dira zuen trikimailuak, eta horrek mintzen duela badakigu.

LABek izen batzuk kaleratzearen arrazoia, langileek ondo igarri dezaten diferentzia, alde batetik ELAko langile arruntak eta bestetik LUPUKERIA eta FAXISMOAREN erabil-tzaileak.

Zeintzuk diren Euskal Herriaren langileriaren beharrak, denborak esango du, bai eta zeintzuk izan diren beti prest egon direnak erantzuna emateko ere.

Langile Abertzaleen Batzordeak

Roneoko ELAko ordezkariak kritika - Nahikoa da!

Enpresa honetako langilea eta afektatua naizen honek (nire lankide askok legez), denok ikutzen gaituen konbenioaren negoziazioa egiteko, gure ordezkari batzuen erabaki arbitrarioa dela eta, honako hau adierazi behar dut.

ELAko ordezkariak Enpresa-Paktua negoziatzeko helburu erreze-giak ezarri dituztela, inoiz ez zaigula egokia iruditu euren plataforma, gure oharrei ez dietela jaramonik egin.

Ordezkari hauekin sindikatu mailako bilera bat izan genuela, aurreakordio batera heldu ondoren (aurrez ezer kontsultatu barik) oso eskuzabal jokatu ia Enpresaren eskaintza bera handitu barik.

Badakigula Enpresak ez dituela inoiz negoziaketak hautsi, baina ELAko ordezkariak aho ahoan jarri diotela.

RONEOko ELAko ordezkariak ez dutela alkartasunik adierazten, langilegoaren sektore baten interesak bakarrik defenditzen dituztela (gutxien zapaldu dituztenak). Presio-neurriak eta jarrera bat hartzeko langileei kontsulta egin bazieten ere, Greba edo Lanuztearen alde irten zelarik, asanblada pribatu batean lortutako aldeko emaitza defenditzen jarraitu zuten. Asanblada honetan euren afiliatuen herenak botatu zuen (gutxien zapaldu dituztenak), "besteoi emari ziguten informazioa baino interresgarriagoa zutela suposatzen da".


Nahikoa da! eurak dira errudun bakarrak bi egun t'erdiko lanuzteak frakasatu badu, ez dute langile guztien eritzia aurrera eramane.

Lanuztearen alde egoteak bakoitzaren eta librea den erabakia hartzea esan nahi du. Ez gara "umeak" edo "anormalak", nahi dutena egiteko. Badakigu zer gura dugun eta bidezkoa dena. Azkenengo asanbladan bozemaileak harpeetatik atera bazenituzten ere, 81 boto mugagabeko lanuztearen alde gure errebindikazioak aurrera eramateko, plater handiegia dela zuek jasan dezazuen.

Ez izan ziniko eta onartu jokoz kanpo zaudetela. Hori ez da sindikalismoa egitea.

Roneoko langilea.

San Juanetan herritik alde egiteko asmoa duzu?



Joxe Onaindia
(Jubilatua)

Herrian geratzeko asmoa. Jaiak urtean behin dira eta bertan alde egingo dugu, ba? Gero bai, alde egindo dugu.




Jaione Isazelaia
(Ikaslea)

Hemen geratuko naiz. San Juanetan hemen geratzen naiz beti.



Ines Gardoki
(Dendaria)

Derrigor, dendaria naiz eta denda zabalik egongo da. Bestela ere geratuko nintzateke.



Mario Agirreurreta
(Ikaslea)


Hemen geratuko naiz. Normalean hemen geratzen gara. Ahalik eta ondoen pasatzeko asmoa dugu.

LENIZ

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9

ESKORIATZA-Arana, 13



Obea

Ate automatikoen ezarpena

Konponketak Berriztapenak

Galdetu preziloak

IGONGAILUEN MANTENIMENDUA

Jose Luis Iñarra, 22-behea

Tfnoa: 79 12 08

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

**empresa
bazkariak
eta
famili bilerak**

“Euskara klaseak eta bere kooperatibisten euskaldun-
tzeko kanpaina ezezik, Ulgor-Fagorrek elebitasuna jarri
du martxan errotulazio eta txostenetan. Txostenak
egiteko sistemak ez du euskara-teknikaririk behar.
“Mikel Lezamiz-ek dioenaren arabera - zera egin behar
da, Euskaltzaindiak gomendatutako enpresa batekin
jarri harremanetan. Edozein hizkuntzatan idatzitako
txostena telefax bidez pasatzea baino ez daukagu eta
ordu bi barru, era berean, euskaratuta bidaltzen digute.
Problema pertsonal-egitura aldatu barik konpondu dugu,
eta hau itzultzailek ezin izan dezaketen enpresa txi-
kientzat ere oso interesgarria izan daiteke”.

(Txema Urzelai kazetariak DV egunkarian)

“Zahur austriarra 2.Munduko Gerra hasi eta sortuta-
ko biolentziaren ondorioz, babes bila iritsi zen Donostia-
ra. Honek Francisco Unzurrunzaga kontratatu zuen, txo-
kolategi bat muntatzeko. Austriarra joan eta Angel Men-
diola donostiara, lanbide bereko beste hirugarren
batekin, Oñatiko Ignazio Egaña, elkartu zen. Txokolate-
gia Oñatira eroatea erabakitzen dute, Ignazio Egañaren
etxabeetan instalatuko dutelarik, berau enpresa berria
zuzentzeko arduraduna izango bait da. 1947an gertatu
zen guzti hau eta Oñatin, zazpi txokolate-industria handi
zegoen eta apalagoa zen beste bat, agian eurekin ez ze-
goen austriarraren ohorez eta bokal bat aldatuz, Zahor
izenaz deitu zutena”.

*(Gloria Abanda kazetariak DV egunkariaren
“Dinero” gehigarrian.)*

“1990erako Fagor Txirringuluri Taldea errepideetan
egongo da, taldeburu Stephen Roche izango delarik.
Aurten bezala, Federazio frantsezean federatuko da.
Guzti hori da dagoeneko ondo lotuta dagoena. Bestelako
posibilitateak irekita daude. Hortik zehar argitaratu di-
ren “ezkontza” eta asmo izugarriak asmakuntza hutsak
dira”.

*(Agustín Mondragón, Fagor Txirringuluri tal-
deko lehendakariak Loiolako Herri Irratian)*

**Ekaina heltzean azter-
ketak dira nagusi ikas-
leen artean, eta askotan
beren balioa zalantzan
jartzen da. Zure eritziz
zein da azterketen balio
edo zentzua?**



Beno kontutan izan be-
har da, Ekainean egiten de-
na ez dela urtean zehar egi-
ten den ebaluazio bakarra.

Gaur egun, ebaluazio jarraia, irakaskuntzan, oso
hedatua dago. Ikasturtean zehar ikasleak behatu,
datuak hartu, etab. egiten da. Azterketak beste datu
bat gehiago dira. Honez gain, ebaluazio bakoitzean
kontrol bat baino gehiago egiten da, Ekainean
kontrol guzti horiek, gei klasean egin diren lanak,
ikasleen jarrerak etab. baloratzen dira.

Lehen azterketetan ikasturte osoa jartzen
zenuen jokuan, gaur egun beste datu ugari izaten
dira kontutan, ikasle baten lana baloratzerakoan.

Goi mailetan, 6., 7. edo 8. mailetan ikasleek
jasan behar izaten duten presioa handiagoa izan ohi
da, guraso etab.ek beraiengan egiten duten presioa-
gatik, gurasoentzat azterketek gero eta garrantzi
handiagoa bait dute.

Azterketek, datu objetiboa eskain diezazukete,
ikasle guztiei froga bera ematean. Bestalde, ikasge-
laren maila neurtzeko, eta horren arabera zeure
lana baloratzeko ere balio dezakete. Hau da, zertan
sakondu edo ondo zer irakatsi duzun eta zer ez
jakiteko ere balio dute. Gaur egun irakasleak dituen
baliabideak, ikasgelen tamaina, irakasleak ematen
dituen ordu kopurua, etab. kontutan harturik, beste
baliabide batzuen artean beste bat dira azterketak.

Edurne Erauskin

San Frantzisko Xabier Ikastolako Zuzendaria

LODITASUNA eta ZELULITISA

Oraintxe bertan, ARRASATEtik irten barik,
aprobetxa zaitez gure esperientziarekin

Kontsulta ARRASATEN: SAIOA KULTURA FISIKORAKO ZENTRUA
Informatzeko: Tfnoa: 945 / 25 62 00 eta 25 63 33 (Gasteiz)

INSTITUTO MEDICO GASTEIZ

BZAR
TOKI ON

*Elektronika artikuluen
salmenta*

J.Carlos Guerra 1, Tfnoa 79 91 64

LARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN**


Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

Arrasate

Press

zure astekaria

Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezen.

Zuk nahi duzun bezala.

PENTSIO-PLANA

Errentagarria, zergaringarria eta zure neurrikoa. Etorkizuna duen dirua.

AURREZKI-PLAN ASEGURATUA

Oso interesgarria eta zergaringarria. Seguru hazten den dirua.

AURREZKI-PLANA

Interes handia aurrezki txikiarentzat. Piskanaka gehiagotzen den dirua da.

XVII. udako euskal unibertsitatea

IRUÑEA: Uztailak 17 - 29

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:

Baiona: ZABAL LIBURUDENDA, Pannecau, 25; tf: 59254390
Bilbo: UEU, General Concha, 25-6. ; tf: 4317145
Donostia: ELHUYAR, Urbieta 7, 3.; tf: 429945
IRAKASLE-ELKARTEA, Amezketarren Plaza 12, 8. F
Gasteiz: AXULAR LIBURUDENDA, Arka 11; tf: 132506
Iruñea: AUZOLAN LIBURUDENDA. S. Gregorio, 3; tf: 223614
XALBADOR LIBURUDENDA, Comedias, 14; tf: 224167
Matrikula-epea: Ekainak 1-30

ARTEA ETA KOMUNIKAZIOA

ANTZERKILARITZA (Uzt. 17/28) Gorputz-prestakuntza / Ipuin-kondalaritza / Jolas dramatikoak / Inprobisaketa
MUSIKA (Uzt. 17/28) "Musika bizi" maisu-maistrentzako ikastaroa / Herri-kantak / "ISILUNE-KONPASA"
BERTSOLARITZA (Uzt. 17/28) Herri-literatura eta bertsolaritzaren sustraiak / Didaktika (Bertsolaritza irakaskuntzan)

GIZA ETA GIZARTE-ZIENTZIAK

EKONOMIA (Uzt. 17/21) Gai orokorrak / Emakumea eta Ekonomia
FILOSOFIA (Uzt. 17/21) Arrazoia eta Nahikundea
HISTORIA (Uzt. 24/28) Iraultza burgesaren aroa Mendebaldean / Euskal Herriko historiaurrea
KAZETARITZA (Uzt. 17/21) Manipulazio informatiboa / Kazetari euskaldunen bilera
PEDAGOGIA (Uzt. 17/21) Gorputzaren tratamendua eskolan
PSIKOLOGIA (Uzt. 24/28) Komunikazioa
SOZIOLOGIA (Uzt. 17/28) Hirigintza eta lurralde-antolakuntza (1) / Soziolinguistika: Herrietako Hizkuntz plangintzarako lehentasunak eta baliabideak (2)
POLITIKA () Perestroika ekialdean, zelako eragina Mendebaldean?
ZUZENBIDEA (Uzt. 24/28) Kode Zibilaren itzulpena / Hirigintza / Gazteen enplegua arautzeko plana / Ingurugiroa Europako legerian / Estradizioa Europan /

HIZKUNTZALARITZA

GLOTODIDAKTIKA (Uztailak 17/28) Motibapena aztergai / Soziolinguistika klasikoa eta berria: estrategiak / Hizkuntzen didaktika helduen alorrean / ...
LINGUISTIKA (Uzt. 17/28) Fonologia / Praktikak /

ITZULPENGINTZA (Uzt. 17/21) Historia eta korranteak / Itzulpen literarioa / Itzulpen pragmatikoa / Esan osteko interpretaritza / Aldibereko interpretaritza / Itzulpena gaur Euskal Herrian

NEKAZARITZA

NEKAZARITZA (Uzt. 17/21) Nekazal politika / Laguntza-egitasmoak / Ikerkuntza / Bioteknologia / Nekazaritza eta ingurugiroa

NATUR ZIENTZIAK

MEDIKUNTZA (Uzt. 17/21) Yoga / Homeopatia / Akupuntura / Nutrizioa / Medikuntz arloko lexikografi mintegia
NATUR ZIENTZIAK (Uzt. 17/28) Ibaien ekologia / Zoologia (teoria eta praktikak) / Aralar aztergai / Biologia-gaiak /

ZIENTZIA ETA TEKNIKA

FISIKA (Uzt. 17/28) Ikerketa-zentruen eta unibertsitate-laborategien azalpena / Elektronika kurtsua / ...
INFORMATIKA (Uzt. 17/21) Konputagailu bidezko analisi morfologiko eta sintaktikoa / Konputagailuz Lagunduriko Irakaskuntza / ...
KIMIKA (Uzt. 24/28) Material berriak: konpositeak etab. (24/25) / Euskal kimikari ikerlarien III. Biltzarra (Uzt. 28) / ...
LANEKO EUSKARA (Uzt. 17/28) Hiru azpisailetan banaturik: Zientzia eta teknika / Udal-administrazioa / Sanitate-arloa (24-28).

prentsaren begia

OSTIRALA 16

- Correo:** "Bihar goizean hasiko Arrasaten "San Juanak", haurren tanborradarekin".
DV: "GIZABIDEA eta Udalaren arteko lurzoruen lagapenari buruzko akordioa berretsirik".

LARUNBATA 17

- Correo:** "Arrasateko Udalak produkzio-sektoreei buruz lau azterlan sozio-ekonomiko egin lezake".
DEIA: "San Juan jaietako prestaketa -lanak".
DV: "Atzoko botuak, auzorik auzo., Alderdi guztiek egin dute behera".
EGIN: "CDTI eta Fagor-en arteko akordioa proiektu elektronikoko bat finantzatzeko"

IGANDEA 18

- Correo:** "Haurren Eguna", Arrasateko San Juan jaietako lehen eguna".
DV: "Haurren Egunak eta bi lehiaketak, San Juan jaietako hasiera emango gaur".
EGIN: "VIII. Toki Ageriko Pintura Lehiaketa ospatzen da gaur"

ASTELEHENA 19

- Correo:** "AUKEAK Arrasateko Udalaritza Iturripe eta Makatzenari buruz proposamen berriak aurkeztu".
EGIN: "Arrasaten, San Juan jaietako hasiera emanez, jaien inguruko asteburua".

ASTEARTEA 20

- Correo:** "Deba Garaiko Udal Elkarteak Uztailaren hasieran, Arrasaten, bidesareari buruzko jardunaldi batzuk antolatuko".
Deia: "Neska-mutikoak, makallua eta tanborrada, San Juanetako protagonistak".
DV: "Jose Antonio Gay-k doletea lortu Segorian eta Getxon, Europarako minimoa eta Euskadiko titularekin".
Egin: "Arrasateko eta Elgetak Eloi Irazabal presoari harrera beroa eskaini zioten".

AZTEAZKENA 21

- Correo:** "Arrasateko plenoak gaur arratsaldean Iturripe ingurua afektatzen duten Arau Subsidiarioen aldaketa aztertuko".
Deia: "Ricardo Perez leioarrak, pintura-lehiaketa irabazi".
DV: "Gaur, Urbanizazio-gai ugari plenoak".
Egin: "Plenoak EGUZKik aurkeztutako tximistorratz erradiaktiboari buruzko mozioa aztertuko."

OSTEGUNA 22

- Correo:** "Deba bailarako etorkizuneko "korredorea", Arrasate eta Bergara arteko bideguneak autobide maila eta ezaugarriak izango".
Deia: "Hogeiren bat gazte, auzolandegietan".
DV: "SUDC-ek biharko tanborradako parte hartzeko problemak konpondu".
Egin: "Gas-kontzumentzaileen koordinakundea gaur bilduko alderdi politikoekin".

Usteak uste...

89ko eurohauteskundeak historia dira honez gero. Orain, emaitzen arabera, zauriak sendatzeko edota garaipenaren ezia dastatzeko garaia da.

Ezaugarri aipatuenetarikoa abs-tentzioa izan da. Berau eragiten du-ten faktore bat baino gehiago egon-go da, jakina. Bat, eta ez handiena, seguru asko, hauteskunde guztietan ematen den pikareskak sortzen due-la esango nuke. Kasu honetan, karta-zalen pikareska.

1987ko hauteskundeetan ko-mentario ugari entzun zen botoa prestatuta eramateko partiduek etxeetan banatzen zituzten kartaza-lak markatuta zeudela eta, botoa ematearen sekretua apurtu egin zela. Aurten ere entzun da horrelakorik: batzuen kartazalek puntu bat zutela, besteek letra mota desberdina, haienak mihi luzeagokoak zirela, etab.

Gazteari gehiegi inporta ez ba-zazio ere, hauteslekuan bertan eman dezakeelako lasai asko botoa, jende nagusia, berriz, ikaragarri ardura-tzen duen arazoa da. Adinekoak, ohitura faltaz edo, galduta sentitzen dira etxolaxoan duten paper mor-doaren aurrean eta nahiago izaten dute botoa etxeko lasaitasunean aukeratu eta prestatuta utzi.

Guzti hori sekretua delakoan. Kartazalak markatuta daudela eta hautes-mahaian dauden pertiduetako ordezkariak nori eman dioten botoa erraz asko jakin dezaketela entzuten eta frogatzen dutenean, erabat engainatuta sentitzen dira. "Horretarako kaka jatie jaukane, ni ez noian botatzeraz", oraingoan boz-katzeari uko egin dion nagusi baten hitzak dira.

Joxe Aranzabal



HAURTOKO A
ARANBURU

Arrasate Pasealekua, 4
79 14 90 ARRASATE

BATZOKIA

jatetxea

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate



KILI-KOLO

Ferrerrias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

Fagorrek eta CDTIk miloietako akordioa sinatu

Fagorrek eta CDTIk (Centro para el Desarrollo Tecnológico Industrial) aurtengo akordio teknologikorik handiena sinatu zuten ostiralean, hilak 16. Akordio honen bidez Fagor Elektronikak 550 milioiko kreditu bereziak eskuratuko ditu. Kreditu hauek 2.000 milioiko hiru urteko Ikerketa eta Garapenako proiektuak finantzatzeko balioko dute. Bi arlo konkretuetan gauzatuko dira proiektuak: semikonduktoreak eta radio-frekuentzia.

Honako hauek sinatu zuten akordioa: Antonio Carvajal, CDTIko zuzendariak, Javier Monjelos, Fago-



J. Aldekoa, J. Monjelos, eta A. Carvajal

rreko Zuzenadari Nagusiak eta Jose María Aldekoa, Fagor Elektronikako Gerenteak.

CDTI, Industri Ministeritzaren menpeko erakunde estatala da, eta hau da Fagorrekin sinatzen duen zortzigarren akordioa.

Zeurea eman, kontzientziazio kanpaina

Arrasatek, Deba Bailarako Udalguztiek elkarlanean, Irailean egingo den Zeurea Eman euskararen transmisioari buruzko kontzientziazio-kanpainan parte hartuko du. Honen helburua familia bidezko transmisioa ziurtatzea eta euskara ama-hizkuntza ez duten ume eta nagusiek eskolan ikastea bultzatzea dira.

Tximistorrazak

Azkenengo plenoan Eguzkik tximistorratz erradiaktiboetarako buruzko mozioa aurkeztu zuen. Honetan, hauen zentsua egitea, eta Udalak hauek kentzeko gestioak egin ditzala eskatzen zen. Mozioa onartu zen (14 abstentzio, 7 bai) eta, bide batez, Eguzkiri, eskerrak ematez gain, gai honi buruz orain arte egin denaren berri ematen zaio.



Lehiaketak. San Juanekin batera, txapelketak etorri zaizkigu. Joan den asteburuan, ageri tokiko pintura-lehiaketa eta makallau pil-pilekoak izan ziren.

Lehenengoan 47 helduk eta 6 hurrek hartu zuten parte. Lehen postuko 45.000 pta. Richard Perez leioarrak eskuratu zuen. Bigarrena, Ricardo Azkargorta bergararra izan zen, 35.000 pta. eskuratu; hirugarrena, Jesus Camacho, beasaindarra, 20.000. Bertako lehen artista Luis M^a Olivenza izan zen. Infantil mailan, Aitor Lanjarin eskoriatzarrak suertatu zen irabazle. Obra guztiekin erakusketa dago Monterronen.

Makallau pil-pileko lehiaketan, bestalde, Andoni gemikarrra suertatu zen irabazle, 15.000 pta. eskuratu. Bigarren postuan, Leintze elkarteko Valentin Moreno geratu zen.

Parques y Jardines S. A.

**PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA
LORAZANTZAKO MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ**

Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94 - 6819082 ABADIÑO (BIZKAIA)

Tabernei buruzko arauak

Ostiraleko plenoan onartu ziren taberna, kafetegi eta antzerakoak erregulatuko dituzten arauak. Lehendabizi kategoria ezberdinak definitzen dira Sailkapena lau ataletan banatzen da: 0 Taldea: gozodenda eta degustazioak, gaueko 10etatik aurrera, zabalik egongo ez direnak; 1 Taldea: taberna, bodegak, kafetegiak, jatatxe, elkarteak, etab.; 2 Taldea: ordutegi bereziko tabernak, pubak, disko-barak, etab.; 3 Taldea: diskotekak, boiteak, dantzatokiak, etab.

Honetaz gain, establezimendu orok bete beharko dituzten udal arau batzuk ezarri dira. Arau hauek azalera eta edukiera, aktibitateen arteko distantzia, gutxienezko altuera, sarbideak, bentilazioa, komunak, argiketa, zarata eta bibrazioak, suten prebentzioa eta multei buruzkoak dira.

Aipagarria da zaratei buruzko arau berriak: hauen arabera, tabernen gainean bizi diren auzokideek ezin izango dute jasan 30 dezibeliotik -db (A)-. gorako zaratarik. Horrela, tabernan 93 db. (A)ko zarata sortzen bada, insonorizazio sistema 63 db. (A)koa izan beharko du. Ixteko ordutegiari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak finkatzen dituenak errespetatu egin beharko dira.



Araudiak taberna eta antzerakoak aginduko ditu

Zigorrak

Ezarriko diren zigorrei dagokionez, Udalak ahalmena du nahi duena ezartzeko. Zigorrek abisua ematek, taberna ixterainoko mailak dituzte.

Esan behar da dagoeneko taberna batzuk zigorrak jaso dituztela: Espillu tabernak, hilaren 12tik 24era arte itxita egon beharko du, eta Ekaitz tabernan ezingo da musika ipini, 15 egunetan, gaueko 10etatik aurrera. Beste establezimendu batzuk abisuak jaso dituzte.

Amorruaren aurkako kanpaina

Amorruaren aurkako txertaketa kanpainaren barruan, hiru hilabetetik gorako txakurrek derrigorrez hartu beharko dute txertoa. Txertaketak Uztailaren 3, 4, 5 eta 6an, 7,30etatik aurrera izango dira, San Frantzisko kaleko 4ean. Egun hauetan, sei hilabetetik gorako katuentzat txertaketak ere izango dira. Hauek borontatezkoak dira. Animalien osasun-kartila eraman beharra dago.

Uztaila kultur hilabetea Monterronen

Datorren Uztailerako hainbat kultur ekitaldi Monterroneko Parkean izango dira. Ekainaren 30ean eta Uztailaren 1ean, Geroaren "Grand Place" obra antzestuko da. Uztailaren 14ean, "Horacioren titeren" en eskutik, titeren-saioa izango da. Ostiral guztietan Monterronen ere, aire librean, beraz, pelikula izango dira. Ekitaldi denak gaueko 10,30etan.

Kultur elkartei subentzioak

Azkenengo Gobernu Batzordean, eta kultur elkarten kulturaleen eskaerari erantzunez, honako dirulaguntzahauk eman ziren: Arrasate Yoga Elkarteari 50.000 pta, eta Leniz Zeramika Eskolari, 611.239 pta., iaz baino %5a gehiago. Azkenengo hau ematerakoan, kontutan hartu dira talde honek Otsailetik Ekainera, eta Apiriletik Ekainera antolatatu dituen ikastaroak.

Mondragonesa Grafikagintza

paperdenda - mahaigaineko tresnak

Olarte 10 - tfnoa 79 12 63

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala


Tailerra: Zaldispe, 2
Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78



PEÑACOBAMA
Auto-Eskola

Zarugalde, 46

Tfnoa: 79 29 93
79 14 01

ARRASATE



Haurrak bankuekin familiarizatu dira

Finantz Zerbitzuei buruzko hezkuntz proiektua Almenen

Asteazkenean aurkeztu zen Almenen oraintxe bukatutako finantz zerbitzuei buruzko hezkuntz proiektua. Hau Almenen OHoko bigarren

etapako ikasleekin egiten ari diren inguruarekin zerikusia duten proiektuen barruan kokatu behar da, eta hiru hilabete iraun du. Lana bu-

Plenoa: Begoña Mujika bake epailea izango

Ez zen izan eztabaidatsua asteazkenean egindako plenoa, aurkeztutako 16 puntuak, aho batez, eta mozio bat onartu bait ziren: Cordoba y Oro eta Obenerrekako lurazpiko aparkalekuen proiektuen lehiaketadialdia zabaltzea; tabernak, kafetegiak eta antzerakoak agintzen dituen Udal Arautegia berrestea; Bake-Epailearen izendapena, orain arte Barrutiko Epailea izan den M. Begoña Mujika izaten jarraituko duelarik,

eta Eguzkik tximistorratz erradiaktiboei buruzko mozioa aurkeztea.

Tabernen Arautegia onartzera koan, eztabaidatxo bat izan zen. Lanak zera esan zuten: "ez dugu ulertzen nola Ispillu taberna ixten den bitartean, beste bat (Gestorarena) udal baimenik gabe zabaltzen den. Ruiz de Azuak ere bere harridura erakutsi zuen honi buruz, azkenean denuntzia aurkeztu zuelarik.

rutzerakoan, Eroski eta LKAren laguntza izan dute. Hiru zati izan ditu: lehenengoan, ekonomia eta diruari buruzko nozio teorikoak ikasi dituzte; bigarrenean, lau tailer eratu dira: Boltsa, Bilbokoa bisitatu, Kontabilitatea, Kreditoko Dokumentuak eta Udal Aurrekontuei buruzko tailerrak, hain zuzen; hirugarrenean, aipagarriena, 117 ikaslek, 24 taldetan banaturik, LKAko hiru sukurtsaletan eta hiru hilabeteetan zehar, diru sartze eta ateratzeak burutu dituzte.

Proiektua amaitzeko, 300.000 pta.ko mailegua eskatu dute, diru honek sortu dituen interesak, maileguaren amortizazioa, etab.eko informazioa segitu dutelarik. Hezkuntz proiektu honen helburua diruaren balorea ezagutaraztea eta ikasleak finantz sistemarekin familiarizatzea izan dira.

JAIOTZAK

Mugika Bikuña *Mikel*
Ekainaren 11n
Hernando Roman *Sandra*
Ekainaren 15ean

EZKONTZAK

Jesus Dominguez Moneo & M^a
Josefa Paunero Morales
Ekainaren 17an. Elizez.
Ramon V. Azkarate Lizarralde
& M^a Soroya Iglesias Gonzalez
Ekainaren 17an. Elizez.



comercial
SUMOFIC, S.A.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

**ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK,
STANDARak ETA NEURRIRA.**

**DATU-BASEAK
OFIMATIKA
MANTENU-ZERBITZUA
*Ekipamendu eta programak
*Telemendua**

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR

Gaztetxea eta insumisioaren aldeko astea

Kakitzat, Arrasateko talde antimilitaristak eta Arrasateko Gazte Asanbladak antolatuta, Ekainaren 25etik Uztailaren 2ra Gaztetxea eta insumisioaren aldeko astea izango da Arrasaten. Honen barruan, hiru antzerki, bi mahainguru eta bideo proiektioaz eta materiale antimilitaristaz osatutako erakusketa bat antolatuko dira (ikus agendan).

Astea igandean, hilaren 25ean, Tunantes del Norte talde arrasatearraren antzerki saioaz hasiko da. Antzestuko duten obrak C.I.-R.I.O.(Campamento de instrucción de reclutas ineptos y objetores) du titulua. Obra hau, humorez beteta, objetoreen kanpamendu batean garatzen da eta zazpi aktorek hartzen dute parte muntaian: Isabel Dura Durán tenientea, Martínez sargentoa eta bost objetore: Pacifico Testigo, Silvestre Estacione, Max Rayax, Santiago Desertez eta Tomás Tomaré.



C.I.R.I.O. antzerki-obraren entsaio bat



Eloi Irazabal, joan den ostira-lean, hilak 16, Madrileko Auzitegian libre utzi zuten kargu barik. Eloi urtebete eta lau hilabetez izan da Herrera eta Alcalako gartzelatan. Harrera egiteko kotxe-karabana egin zen Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Bergara eta bere herria den Elgeta zeharkatu zuelarik. Arrasaten ehundaka lagunek eman zioten harrera. Momentu hunkigarriena Iratin gertatu zen, bere argazkia beste presoen ondotik kendu zue-nean.

Gay eta Lesbianen Harrotasunaren Eguna

Aurten ere, Ekainaren 28an, munduko beste leku askotan bezalaxe, hemen ere, gay eta lesbianen harrotasunaren eguna ospatuko da. Arrasaten iaz ospatu zen lehenengo aldiz. Hau dela eta, Emakumeen Asanbladak hainbat ekitaldi antolatu ditu: 28an, Sebero Altubetik 7etan manifestazioak urtengo du. 29an, emakumeentzat bakarrik, Monterronen 7,30etan, bideo-hitzaldia izango da, "Silvia ama a Raquel" izeneko pelikularekin.

comercial
SUMOFIC, S.A.

PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,
FOTOKOPIAGAILU,
TELEFAX,
etab.etan.
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**

T x a n d a k a

Zure beldurra euren indarra da

Beste urte bat gehiago eta, klase sozial, adin, lanbide... gizon eta emakumeok Ekainaren 28an, **GAY ETA LESBIANEN HARRROTASUNAREN EGUNA** ospatuko dugu.

Arrasaten zail gertatzen da erreibindikazio hau ateratzen urteko edozein egunetan. Gainera, are gaitzagoa San Juanak direlako eta jende asko kanpora joaten delako. Dena den, toki hau hausnarketaren gunea izatea espero dugu.


Zure beldurra-geure beldurra

Ez da berria lesbianok eta homosexualok historian zehar deformatu, biziotsu, gaixo, zapustutzat tratatu gaituztela esatea, ... beno! ez dugu negar egingo! argi eta garbi dago guk isilpean egitea nahi dutela, zeren eta gutxien uste duzunean, ezarritakoa apurtzen duzunean, errepresiorik gogorra eta zakarra etorriko bait zaizu, zeinekin topo egiten dugunaren arabera.

Ez dugu galdetuko zer duen berezitat gure "bi aurpegiko bizimoduak" bestelako bizimoduen arrian; gurean maitasun-sexu nortasuna da kilikolo dagoena eta hau gure izatearen funtsa da. Bere osotasunean bizitzerik eta adierazterik ez badugu, argi dago gurea den zerbait ezkutan geratzen dela, herioan. Bi aurpegiko bizimodu hori baitaritzen ari gara, autokontserbazioaren mekanismoa, ondo portatzen, itxurak egiten, erriprimitzen ikasten dugu.

Euren indarra

Gaitz jartzen digute, gure harremanak bete betean (behar den mo-



Marije Zabarte*

duan) bizitzea gaitz jartzen digute, erruduntasun, lotsa, ez dakit zer garela jakin dezaketenari beldur, bakoitzak jakiteko beldurra, ... Ez da zaila Gizarteak arrazoiak duela eta bide zuzenetik ez goazela pentsatuz amaitzea.

Beharrezko eta gure konkretuak, mugatu egiten gaituztenak baina babestu ere egiten dutenak, une gutxi batzuetako ilusioa bakarrik bada ere, geure burua etengabe zaintzen ez aritzen uzten digutenak.

Zenbait eskubide galerazten duten Lege erregulatzailerak, edozeinek eduki ditzakeen eskubideak, lesbiana eta homosexualentzat diskriminatzaile izateari utzi ez dioten legeak.

Eta... Ausar zaitez zeu ere

Gure baitan, bestalde, ez dugu normalizatu beharra sentitzen, botereak sortzen digun isiltasuna ere ez zaigu interesatzen ez gara gizarte horren zati bat, gainera ez dugu bere artxiboetan agertu nahi "Rara Avis" izenean; beraz, harrotasunez aldarrikatzen dugu lesbiana izenpean bizi garela, badakigularik gaur egun Gizarte honetan guzti hau subertsibo, probokatzailerak eta bereiztailea dena.

Ez dugu izan nahi sistema sozial, toleragaitz, militarizatu, autoritari honetakoak ... gehien dutenen alde dagoen sistema; gizon edo emakumeen boterearen alde, sexu-planteamendu bakartzat heterosexualitatearen alde egiten duen sistema.

(* Arrasateko Emakumeen Asanbladako kidea.

Auzoko inbertsioak

Aurtengo aurrekontuetan 16 milioiko kontusaila dago auzoetan hainbat obra eta konponketa egiteko. Zehaztu da, dagoeneko, ze proiektu konkreturi ekingo zaion:

* **Erdialdean:** Monterroneko lorategiko zaltokiak: 1.300.000 pta., Nafarroa Etorbidea eta errekaen arteko trenbide zaharraren konponketa: 600.000;

* **Musakolan:** San Lorentzo Plazaren konponketaren 1. fasea: 600.000, Kioskoaren alderdiaren konponketa: 700.000;

* **San Andres:** Hiruki-Bañez Doktoarearen Plazaren argiketaren hobekuntza: 1.100.000;

* **Santamaina:** Santamaina kaleko argiteria: 2.500.000, Mentu Plaza eta Oberrenekako atzekaldeko argiteria: 200.000, Alkatetzako altzariak: 600.000, S. Teresa kaleko hormatxo transformatzailea: 500.000;

* **Uribarri:** Montte-Injineruen etxearen arteko eskaileren konponketa: 500.000;

* **Meatzerreka:** Baserrietako Uren homiduraren azterlana : zehazteke;

* **San Andres baserri-auzoa:** Intxausti baserriaren zubiaren konponketa: 800.000; Trenbide Zubia-aren barandak: 400.000;

* **Udala:** Aparkalekuen eraikuntza: 300.000;

* **Uribarri baserri-auzoa:** Uribarriko Elizaren argiteria: 700.000;

* **Garagartza:** Argiteria publikoaren proiektuaren bukaera: 2.950.000; Argiteria 1. fasea: 120.000;

* **Gesalibar:** Zerbitzuak: 700.000; Guztira, 14.570.000 pta.

ILE - ERORKETA

Oraintxe bertan, **ARRASATE**tik irten barik, aprobeitza zaitez gure esperientziarekin

Kontsulta **ARRASATEN:** SAIOA KULTURA FISIKORAKO ZENTRUA
Informatzeko: Tinoa: 945 / 25 62 00 eta 25 63 33 (Gasteiz)

INSTITUTO MEDICO GASTEIZ

apainketak

Zubizarreta
GALERIA 44

erakusketak

o
p
a
r
i
a




Bixente Zurbano bergarra, Iñaki Azkunaga bilbotarra, Ricardo Fernandez logroniarra, Joxe Lopez de Arkaute arrasatearra, Joxe Manuel Corcuera madrildarra eta Pablo Letona marindarrak, argazkian agertzen ez dena, 25 urte betetzen dituzte aurten Eskola Politeknikoan.

Hona hemen, haurren tanborradaren banderadunak, elkarteen banderak astintzen estilo ederraz. Aurten karrozaren gaia Labeko Koba izan zen. 23an gauean nagusia ikusteko aukera izango dugu.



26an 6,30etan Zaldibarren esku pilota partidu interesgarriak izango dira, Gregori Uranga

“Kirru” enpresariaren zuzendaritzapean, bi desafio: Langaran Txikito de Beneras eta



Reyes Txikita de Elosu-ren aurka, alde batetik, eta Agustin Beitia Cipri eta Agustin Ibarluzea Txispas, bestetik. Asteartean Plus Ultran desafioen aurkezpena eta piloten pisatzea izan zen. Txispas-ek 106 gr.koa eta Ciprik 104koa aukeratu zituzten.

izen propioak

Eloi Irazabal, 36, Elgetakoa. Urtebete eta lau hilabete Alcala eta Herrerako gartzeletan izan ondoren, joan den larunbatean libre utzi zuten. Eloik, gartzelatu baino lehen, hamar urte eman zuten errefuxiatu Iparralden. Garagartzako Fagorren egiten zuen lan, eta Merche Sainz arrasatearrarekin ezkondu da.

Jose Mari Aldekoa, 42, ermurrak 550 milioi pezetako kreditoa sinatu zuen CDTIrekin Fagor Elektroteknikaren izenean, kooperatiba honetan I+D delakoa -ikerkuntza eta garapena- bultzatzeko. J. Marik Injinerutza Teknikoa Eskolan egin zuen. Copreci-ko pertsonal buru eta lehendakaria izana, orain Fagor Elektroteknikako gerentea dugu.

Jose Manuel Pagoaga, Peixoto, 45, Aranguren baserriko errefuxiatua, Baigorri inguruan detentatu zuten, Legrand epaile frantsezaren aginduz. Peixoto, Jose Mari eta Enrike erbesteratuen anaia da. 1968tik Iparralden bizi da. 1979an ia itsu gelditu zen BVeren atentatu baten ondorioz. Azken eurohauteskundeetan laugarrena izan zen HBren zerrendan.

Valentin Moreno, 31, Arrasateko Leintze elkarteko sukaldariak prestatutako makailoak bigarren saria, 10.000 pta. eta garaikurra merezi izan zituen SDUCek antolatutako lehiaketa gastronomikoan. Valentinnek marmolgintzan egiten du lan, Bergarako enpresa batean.

Xabier Murua, 43, bergarra ELA sindikatuaren Garraio Federazioaren idazkari nagusi berrizendatu dute aipatu sindikatuak egin duen II. Kongresuan. Banco S. Sebastian, CLP eta Bergarako Cedentor enpresetan lan egin ondoren, 1977an liberatu egin zen ELAko Interprofesionalako arduradun moduan Deba Garaian.

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa.

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

Gure ingurugiroan kaltetuen errekek

Hirurogeigarren hamarkadan Arrasatek, garapen ekonomiko eta industrial handia ezagutu zuen. Horren ondorioz, herria hazi eta aberasu egin zen. Baina honek herriari onura ekarri dion bezalaxe, ezin ukatu bere ondorio txarrak ere izan dituela. Horrela, beste leku askotan gertatu den bezalaxe, gure herriak kutxadura arazoak jasan behar izan ditu, Bilbok duen mailarekin ez badugu gonbaratzerik ere.



Aramaio erreka urak edozein kolore izan dezakete

Errekak hondatuen

Arrasate inguruetan, kutxadura onduz zerbait hondatu bada, bere erreka izan dira. Jadanik inguru honetan inor ez da harrizten erreka egun batean gorri eta hurrengoan beltz ikusteaz. Gure gurasoek, Deba eta Aramaio ibaiak garbi gogoratzen dituzte, igari egiten ikasi zuten osina ere gogoan garbi garbi dute, baina dagoeneko joan dira urte horiek eta gaur egungo errealtatea oso bestelakoa da.

Deba ibaiak, zein Aramaio ibaiak, biek, gure herria beltz beltz eginik zeharkatzen dute, eta beren egoera tamalgarriaren errua betidanik lantegiei egotzi zaie; baina lantegiek al daukate egoera honen erru bakarra? Jakina da, lantegiek erreka jaurtikitzen dituzten zaborrak askotan oso kutsakorrak izaten direla, berun edo aluminioz konposatutako substantziak botatzen dituztelako eta hauek bizitzarentzat pozoin-tsua suertatzen direlako. Hala ere,

ezin ukatu, etxeek erreka zikinke-ria ugari jaurtitzen dutela. Garai batean, etxeetatik erreketara botatzen ziren zaborrak, honek jasateko neurrikoak izaten ziren. Baina etxe kopurua gehitzean eta etxeetan erabiltzen diren produktuak aldatzean, hauek ere oso kutsakor bihurtu dira. Etxeetan lasai asko lixiba, amoniako edota xaboiak erabiltzen ditugu eta hauek erreketan dagoen biziarentzat

***Udalak ez du ingurugiroarekin lotutako politikarik.
Erreketan zaborrak botatzen dutenen kontra,
ezer gutxi egin dezake***

oso kaltegarriak dira.

Bestalde, Arrasate handitzean, erreka tarte batzuetan estali egin dute eta ondorioz, erreka tarte horiek hil egin ditugu, haize eta argi faltagatik.

Honez gain, errekek beren ubideetatik atera ditugu, gaur egun Roneo lantegia eraikitzeke egin du-

ten bezalaxe. Erreka bere ohiko ibilbidetik ateratzean, uholde arriskuak handitu egiten dira, ibaietan berez egoten den landaretzak oztopatu egiten bait du ura bere joanean. Aldiz, zementuz eginiko ubideetan, ez dugu horrelako landaretzarik aurkituko.

Beste zenbait arazo

Baina gure herriak errekenaz gain, era honetako arazo gehiago ere baditu. Hala nola, herri inguruan gehitzen joan diren zabortegei inkontrolatuak, edota kotxeek sortzen duten kutsadura.

Gaur egun, Deba Garaia inguruan, hogeitamabost zabortegei inkontrolatu dago. Berauetara botatzen den zaborra zein eratakoa den inork kontrolatzen ez duelarik.

Zabortegeien arazoak nolabait kontrolatzeko eta konpontzeko, Deba Garaiko Udal Elkarteak isurtegei kontrolatua egiteko asmoa du. Isurtegei hau, Epelen eraikiko dute, Bergarako lurretan eta bertara hondakin solido geldoak botatzeko aukera izango da, gaur egungo zabortegei inkontrolatuak desagertuko direlakoan ustean.

Bestalde, Arrasatek duen kotxe eta trafiko arazo handia eta ondorioz sortzen diren zarata eta keak, bariantea egitean neurri handi batean desagertzea espero da.

Udalak gauza handirik ez

Arrasateko Udalean badugu Ingurugirorako Batzordea, edo hobeto esanda, Hirigintza eta Ingurugirora-

ko Batzordea dugu. Batzordearen izena hori bada ere, errealtatean Hirigintza Batzordea baino ez da bertan duguna. Hau da, batzorde horretan egiten diren lanak, soil soilik hirigintzari dagozkionak dira, ingurugiroa batzordearen izenean baino ez delarik azaltzen.

Aurten, Udalaren aurrekontuak egiterako orduan Aramaio ibaia nolabait konpontzeko, milioi bateko diru-partida gordetzeko proposamena egon zen, baina ez zen onartu. Batzorde honetako buru den Josemari Usatorrekin hitz egin dugu, eta berak aitortu digunez, Arrasateko Udalak ingurugiroarekin loturiko inolako politikarik ez du.

Gaur egun, Udalak erreketara zaborrak botatzen direnean isun txikiak jartzeko aukera du edota lantegia ixtekoa. Udalak jar dezakeen isuna hain txikia izanik eta lantegia ixtea irrigarria denez, Udalak ezer gutxi egin dezakeela esango dugu. Normalean, lantegiren batek errekarra zikinkeria bota duela jakitean, Udalak uren partzuergoaren aurrean salatzen du lantegia, honek isun handiak jartzeko ahalmena duelarik. Edozein modutan ere, gaur egun, udaltzain gutxi egotean, oso zail suertatzen da lantegiak errekarra zaborrak botatzen harrapatzea.

Talde ekologistek zer


Arrasaten dauden talde ekologista biek in harremanetan jarri gara honen inguruan zer esanik duten jakin guran. EKIk orain dela gutxi herriko lantegi batzuk errekarra zabor kutsakorrek botatzeagatik salatu ditu,

ren dira larrienak.

Diputazioa, jadanik, zerbait egingen hasi dela adierazi digute, errekar garbitzeko plan bat burutzen ari delarik. Plan honek, Aramaio eta Deba ibaiak garbitzeko hiru fase ikusten ditu. Lehen fase batean,

garrantzitsuenari.

Bestalde, trafikoa dela eta bariantek zerbait konpontzen duen ikusteko asmoa dute. Durangotik Beasainera errepidea egin behar dutela ikusiz gero, Kanpazarretik iragaten diren kamioiak kontrola-



Noizko depuradorea fabrika guztietan?

Santa Agedan hasi eta hiltegi ingururaino kolektore bat eraikiko litzateke. Bigarren epe batean, San Pru-

tzearena. Era honetan, Kanpazar erabiltzen duten kamioietatik zenbat Arrasatera eta zenbat beste herri batzuetara joaten diren jakiteko aukera izango lukete. Honek errepide horrek zentzurik duen ala ez jakiten lagunduko die, eta errepidearen aurrean hartu beharreko jokabidea erabakitzen.

Beraz, garbi dago Arrasatek beste leku batzuekin gonbaratuz gero, ez duela oso arazo larririk, baina izan badituela. Berauek konpontzeko orduan herria bera bakarrik ez da gauza, baina bertan bizi garenok kontu apurren bat izanez gero, arazoa arindu egingo litzateke. Honetarako gutariko bakoitzak zaborrak errekarra ez botatzen, edo kotxea metro gutxi batzuk egiteko ez erabiltzen ikasi beharko genuke.

***Arrasatek ez du kutsadura arazo oso larririk;
hala ere bertako erreken egoera benetan
penagarria da.***

eta horren aurrean Udalak zerbait egin beharko duela adierazi digu.

Eguzkikoeak, bestalde, momentuko salaketa hauek zerbaitetarako balio dezaketela adierazi digute, baina gauzak nolabait konpondu ahal izateko, konponbide orokorren beharra ikusten dute. Beren ustez, Arrasatek ez du maila honetan arazo handirik, eta errekena eta trafikoa-

dentzioraino beste kolektore bat eraikiko litzateke eta azkenik hirugarren batean San Prudentzion depuradora handi bat eraikiko litzateke. Kolektore hauek eraikitzearekin batera lantegi guztiek, dagoeneko Ulgorrek egin duen antzera, depuradorak jarri beharko litzateke.

Eguzkikoen eritziz, horrelako plan batek, irtenbidea emango lioke Arrasatek maila honetan duen arazo

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



**Zubizarreta
Tailerrak**




**Gipuzkoa Etorbidea 22,
Tfnoa 79 15 65**

Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK
Iturriotz, 15
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN HORNIDURA OSOA - OPARIGAIK


Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

itesa

- * Pisu eta lokalak
- * Orube eta lursailak
- * Balorapenak

Gure aholkularitza,
gestio eta
salmenta-zerbitzuak
eskaintzen
dizkizugu

Maalako errebala, 6. 1



AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECEIko kidea

Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana
Frantsesa
Ingelesa

89 - 90 Ikasturtea
Matrikula
epea
zabalik

Bulego

Ordutegia:

4etatik 8etara

Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32



IMI ZENTRUA

Ekainaren 6tik aurrera,
IMI Zentrua goizeko 9etatik gaueko 9arte za-
balik egongo da,
larunbatean 9etatik 13,00etara.

berango

Arotzeria orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atearak

Legarreko pabiloi industrialak
(Behea) Tfnoa: 79 01 92
ARRASATE

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A.ZANGITU

Tfnoa: 799182 ARRASATE
Tfnoa: 761954 BERGARA

LORATEGI taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

TALLERES AGA, S.A

Zerreilgintza aratzeko
gaiak

Legarre pabiloi industrialak
Tfnoa: 79 02 22
ARRASATE



A R R A S A T E

SAN JUAN JAIK



HOTZ - BERO

zibro
kamin TURBO

Kanpantorpea, 2

Tfnoa: 79 70 98 79 67 54

ARRASATE



***San Juanetan
demasako girue
ta denontzako
erregaluek
AEDn TONBOLAN.***

**Ondo pasau
San Juanak,
euskeraz ahal dala!**

Agurra

Arrasatearrok!

“ Ez da inun gizonik, San Juan dan baizen... ”

Iazkoaren sua hautsak estali zuen, baina 1989.aren haize berriak, ostera berpiztu ere bai. San Juan da.


Urtetik urte, Ekainetik Ekainera, amaigabeko zurrunbiloan, garaia heldu da, udaldiarekin batera.

Eta lanerako gogotsuak bagara, jai egiteko, nola ez.

Ziur hainbeste herritarrek jai hauek prestatzen jarri duten irudimena nabari izango dela aurtengo ospakizunetan.

Agur denori baina bereziki jaioteritik urrundua izan zareten preso eta errefuxiatu politiko guztioi.

Atsegin dakizuela egitaraua, atseginago jaiak.



Halare Ondo passau!

ALKATEA

Egitaraua

EKAINAK 23, OSTIRALA

Arratsaldeko 3etan Biteri Aparkalekuan ETXAFLEROAK et BONBA JAPONIARRAK.

Arratsaldeko 4etan Biteri Aparkalekuan KUKUBILTXO TALDEAREN aktuazioa.

Arratsaldeko 5etatik 8,30etara, 4 eta 14 urte bitarteko umeentzako “MOTOROP” ikuskizuna. Ibilbidea: Monterron-San Frantzisko- Ignazio Zuloaga.

Arratsaldeko 6etan, kuadrilak Musakolan elkartuko dira TXOPOA ekartzeko.

Arratsaldeko 7etan, Arrasateko kuadrilek TXOPOA jasoko dute Biteri Aparkalekuan.

Arratsaldeko 7,30etan, San Juan Bataiatzailearen Parrokian SALVE SOLEMNEA, Lore Gazteak Taldeko Txistulariekin. Ondoren San Juan “Txupinazoa” eta Kanpai hotsa.

Arratsaldeko 8etan, Arrasateko ERRALDOI ETA KILIKIEN Konpartsaren desfilea.

Gaueko 9etan, Biteri Aparkalekuan SAN JUAN SUA Lore Gazteak Taldearen laguntzaz.

Gaueko 10etan, Nafarroa Etorbidetik irten eta herriko kaleetan zehar, NAGUSIEN TANBORRADA, Azkoitiko Musika-Bandarekin. Bukatzeko, Herriko Plazan SAN JUAN HIMNOA kantatuko da. Antolatzailea SUDC.

Gaueko 12etatik aurrera, Biteri Aparkalekuan GAURKO BERRI Taldearekin DANTZALDIA Kaleetan zehar ARRASATEKO GAITEROEN KALEJIRA.

Goizaldeko 2,30etan, BIGANTXAK Zezen Plazan.

EKAINAK 24, LARUNBATA. SAN JUAN EGUNA.

Goizeko 8,15etan, DIANA ARRASATEKO GAITEROEKIN.

Goizeko 8,45etan, entzierroko partehartzailerek MARITXU KAJOI ES-KAINTZA.

Goizeko 9etan, ENTZIERROA, Ferrerías Kaletik irten eta Erdiko Kale eta Iturbidetik pasa ondoren, Roneoko orubean kokaturiko zezen-plazan bukatuko da. Ondoren, zaleentzat zezen plazan bigantxak izango dira.

Goizeko 10etatik aurrera, Polikiroldegian “COPA DE ARRASATE” FUTBOL Txapelketaren azkenak Infantil, Alebin eta Benjamin mailatan.

Goizeko 11etan, San Juan Bataiatzailearen Parrokian, MEZA NAGUSIA.

Goizeko 11etan, Arrasateko ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSAREN desfilea.

Goizeko 11,30etan, Sebero Altube Enparantzan HAURRENTZAKO JOLA-

SAK eta TORTILA LEHIAKETA.

Goizeko 11,30etan, BERGARAKO MUSIKA BANDAREN KALEJIRA. Eguardiko 12etan, Monterron Jauregiko Erakusketa Aretoan 80 URTEKIK GORAKO AITON-AMONEI OMENALDIA.

Eguardiko 12etan, Iturripen RUGBI partidua: Arrasate Kirolak-Baionako Hor Konpon.

Arratsaldeko ordubetetan, Monterron Parkean BERGARAKO MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA (Euria eginez gero Amaia Antzokian ospatuko da).

Egitaratua:

“OBERON “ Obertura Weber

“EZPATA DANTZA” Miguel Gz. Bastida

“DANTZA MACABRA”. Poema Sinfonikoa Saint-Saens

“CARIBBEAN CONCERTO” Suite Kees Vlak

I.- St. Eustatius.

II.- Saba

III.- St. Maarten

Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque.

Arratsaldeko 4etan: Monterron Parkean TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX PAILAZOEN aktuazioa.

Arratsaldeko 5etan, Atxabalpen FUTBOL PARTIDUA Pedrusko-Euskal Selekzioa (regional mailan).

Arratsaldeko 6etan, Kuadrilen arteko TXIRRINDULARI LASTERKETA HAUNDIA. Itteera eta helmuga Portalioan izango da, Lasterketaren Zuzendaria “PATXI LEVITAN” izango delarik.

Arratsaldean, Sebero Altuben ZEZEN MEKANIKOA eta Kondekuan GLOBO AEROSTATIKOA jarriko dira.

Arratsaldeko 7etan, Zezen Plazan Zezenketa, “TORONTO ETA BERE EPOTXAK”

Arratsaldeko 7etan, INCANSABLES eta KOSKOLA Txarangekin KALEJIRA.

Gaueko 8etan, San Juan Bataiatzailea Parrokian KONTZERTUA ARRASATE MUSIKALEN eskutik. EGITARAUA: ORKESTA ETA PIANORAKO KONTZERTUA LA MINOREN (Edward Grieg). Pianoa:IZABELLA BLEZIEN

1SINFONIA DO MAYOREAN (L. Van Beethoven).

“TXANTON PIPERRI” OPERAKO EUSKAL DANTZAK (B. Zapirain)

SAN JUAN HIMNOA

Zuzendaria: Juan Arzamendi.

Gaueko 10,30etan, LIMA Y RON Orkestrarekin BAILE CAMP DANTZALDIA Biteri Aparkalekuan.

Gaueko 11etan, Santa Barbaratik SUZKO ERRUBERA IKUSGARRIAK.

San Juanak 89

Gaueko 12etan, Biteri Aparkalekuan, ZEZEN SUZKOA.
Gaueko ordubateatik aurrera, Sebero Altuben HAUR JOLASAK nagsientzat, Zezen Mekanikoa.

HAUTS GAUA.

Goizaldeko 1,30etatik aurrera, Kondekuan HERRIKO ROCK TALDEEN Jaialdia: MALAÑA, XEMENTERIO, DDDP, ULTIMO RECURSO, SAKARRAK.

Goizaldeko 2,30etan, Zezen Plazan BIGANTXAK.

EKAINAK 25, IGANDEA

Goizaldeko 7,45etan, Kuadrilenzako TXOKOLATADA.

Goizeko 8,15etan, DIANA ARRASATEKO GAITEROEKIN.

Goizeko 8,45etan, entzierroan partehartzaileek MARITXU KAJOIRI ESKAINTZA.

Goizeko 9etan, 1. eta 2. mailako afizionatuentzat, TXIRRINDULARI-LASTERKETA, 51. SAN JUAN SARIA.

Ibilbidea:

ARRASATE-OÑATI-ARRASATE-ARETXABALETA-ESKORIATZA-ALTO DE SALINAS-ESKORIATZA-ARETXABALETA-ARRASATE-OÑATI-ARETXABALETA-ESKORIATZA-ALTO DE SALINAS-ESKORIATZA-ARETXABALETA-ARRASATE-OÑATI-ARRASATE.

Goizeko 9etan, ENTZIERROA, aurreko eguneko ibilbidetik. Ondoren zaleentzat BIGATXAK izango dira.

Goizeko 10etan, Biterin Aldi bereko XAKE PARTIDAK.

Goizeko 11etan, ERRALDOEN VI. DESFILEA. Txantrea, Tafallako Ikastola, Irun, Erandio, Lizarra eta Arrasateko Konpartekin. Desfilea Nafarroa Etorbidetik irten eta, Kaleetan zehar ibili ondoren, Biteri Aparkalekuan bukatuko da.

Goizeko 11etan, GOITIBEHERRA Txapelketa, irteera Olandixo Baserrian eta Helmuga Lagun-Aron.

Eguerdiko 12etan, Atxabalpe Futbol Zelaian EMAKUMEZKOEN FUTBOL PARTIDUA, OKENDO KIROLAK eta URKI ekipoen artean.

Eguerdiko 12etan, Sebero Altuben TXALAPARTA SAIOA.

Arratsaldeko 6etan, GONA eta PATINEKIN POTEOA.

Arratsaldeko 7etan, Sebero Altuben TXALAPARTA SAIOA.

Arratsaldeko 7etan, Zezen Plazan ZEZENKETA.

Arratsaldeko 7eta, KALEJIRA. KOSKOLA ETA TXIMELETA Txarangak kaleetan zehar ibiliko dira.

Gaueko 10etan, Biteri Aparkalekuan DANTZALDIA AKELARRE Taldearekin.

Gaueko 12etan, Biteri Aparkalekuan ZEZEN SUZKOA.
Goizeko 3etan, Kondekuan Zelaian ZINE KOMIKOAREN proiektzioa.

EKAINAK 26, ASTELEHENA. KOADRILEN EGUNA

Goizeko 8,15etan, DIANA ARRASATEKO GAITEROEKIN.

Goizeko 8,45etan, entzierroan partehartzaileek MARITXU KAJOIRI ESKAINTZA.

Goizeko 11etan, TXALAPARTA, JATORRENA ETA TXIMELETA Txarangekin KALEJIRA.

Goizeko 12etan, kuadrilek antolatuta TXIKITEO HERRIKOIA.

Eguerdiko ordubietan, Zaldibarko Pilota Leku ondoan HERRI BAZKARIA.

Goizeko 10etatik aurrera MARMITAKOIA ONDARRUKO ARRANTZALEEK gertatuko dute. SUDCen antolatua. Ticket Salmenta: PLUS ULTRA Taberna, MONTE Taberna, KAJOI Taberna, HIRE Liburudenda.

Ondoren TXARANGA, JOKU, MAGU, BERTSOLARI etab.ekin IZUGARRIZKO ANIMAZIOA.

Arratsaldeko 4,30etan, Biteri Aparkalekuan HAURRENTZAKO ANIMAZIOA.

Arratsaldeko 6,30etan, Zaldibar Frontoian ESKU PILOTA PARTIDU interesgarriak, Gregorio Uranga "KIRRU" enpresari ospetsuaren zuzendaritzapean, ondorengo desafioekin:

TELONEROA: LANGARAN (TXIKITO DE BENERAS), REYES (TXIKITA DE ELOSU)ren aurka.

ESTELARRA: AGUSTIN BEITIA (CIPRI), AGUSTIN IBARLUZEA (TXISPAS)en aurka.

Arratsaldeko 7,30etan, TXALAPARTA, JATORRENA eta TXIMELETA Txarangekin KALEJIRA.

Arratsaldeko 8,30etan, Biteri Aparkalekuan TRONPALARI ERRETZEA.


Gaueko 10etan, BERAKATZ BAND Taldearekin DANTZALDIA Biteri Aparkalekuan.

EKAINAREN 12TIK 18RA

San Juanak 1989 Kartel Lehiaketan parte hartu duten KARTELEN ERAKUSKETA.

EKAINAREN 23tik 26ra.

TONBOLA, Biteri Aparkalekuan inguruan A.E.D.k jarriko duena.



LANTEK

LANTEK S.A. Basabe Poligonoa, C 1. 20550 Aretxabaleta Tlfnoa : 797200

- * CAD-CAM instalazioak egiten dituen Injinerutza-Empresa.
- * Bezeroen beharren arabeko programak sortzea.
- * CAD-CAM eta sare lokaletako Sistema osatuen instalazioa.
- * Kontsultategia :
Bezeroaren arabeko informatika-planak egiten dira.

COMPAQ®



NOVELL

Lore Gazteak, euskal kultura indartuz

"Lore Gazteak" taldea orain dela 25en bat urte sortu zen Zigarrolan. Gaur egun taldean 26 nagusi, 9 txistulari, eta 50en bat ume, bi taldetan banaturik, bata 12-16 urte bitartekoa, eta bestea 6-12 bitartekoa, daude. Urtean zehar ekintza ugari antolatzen dute: nagusiek kanpora irteten dute dantza berriak ikastera, eta jaietan aktuzioak eskeintzen dituzte. Taldeko 6 edo 7k, gainera, astean behin umeei jotak eta plazako dantza errezak erakusten dizkiete. Jende nagusiarentzat, urtero San Juan eta Santo Tomasetara begira, bi ikastaro antolatzen dira: hauetan arin arinak, fandangoak, Tuterako jota, herri-dantzak, etab. erakusten dira. Ikastaro hauek arrakastatsuak suertatzen dira, normalean lokalean kabitzen den baino jende gehiago apuntatzen delarik. Talde barruan txistulari eta dultzaineroen taldeak, azken hau autonomoa, ere badaude.


"Lore Gazteak" taldekoek San Juanetako jaien programan lagun-



tzen dute. Haur Dantzarien Eguna antolatzeaz gain, hainbat ekitalditan hartzen dute parte: pasakaleak, Salvea, San Juan Sua, 24eko ohorezko aurrekua, etabar. Goizeko dianak dultzaineroen kontura doaz.

Haur Dantzarien Eguna hilaren 18an ospatu zen. Aurten 400 haur


etorri ziren Arrasatera. Garai batean 800 etorri ohi ziren. Izan ere, azken urteotan jendeak ez du gehiegi laguntzen haurrak euren etxeetara bazkaltzera eramateko. Badirudi jai honek lehen zeukan giroa galdu egin duela, eta beherantz doa. Honi buruz, zera esan digute, "jendeak jaia nahi du, baina laguntzarik ez du ematen. Eguraldi ona egiten badu, jende asko kanpora joaten da. Batzuk izena ematen dute umeak etxera eramateko eta gero ez dira agertzen." Euskal dantzei buruz ere, ez dira oso baikor agertzen: "Jendeak ez badu laguntzen Eibarren gertatu dena gertatuko hemen ere, euskal dantzen bi talde desagertu direla, eta sebillanak erakusten hasi dira. Umeen gurasoek ere ez digute asko laguntzen, dantzak ikasteari ez diote garrantzi handirik ematen. Batzuk umea, ekarri eta hurrengo urtean, atera, jarraikortasunik lortzea askotan oso zaila suertatzen zaigularik".




DISENOR

DISENOR S.A.
Basabe Poligonoa, C 3.
2550 Aretxabaleta
Tfnoa : 796621

- * CAD arearen Informatika-Zerbitzuetako Empresa
- * Ordenadore bidezko diseinua eta deliniazioa
- * Programazio eta Kalkulu teknikoak
- * Manual tekniko eta Autoedizio-programak dituzten dokumentuen komposaketa






KUTXA ZURE JAIETAN LAGUN

Gipuzkoako Kutxak
zurekin bizi nahi ditu
jaiak.

Egun berezi-berezi
hauetako alaitasun-
-giroan parte hartu.
Giro horretaz gozatu.
Tradizioarengatik.

Gipuzkoar jator
garenez, guztiok
barrenean daramagun
zerbait bait da hori.
Festa Zoriontsuak!



GK:

GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA

Koadrila Batzordea: "Arrasaten jendea oso lotsatia da"

San Juanetako programa egiterakoan hainbat taldek eta instituziok hartzen dute parte: Udala, SUDC, AUKEA, Lore Gazteak, Gaiteroak eta Koadrila Batzordeak, hain zuzen. Azken honen ardura, batez ere, kaleko giroa animatzea eta hainbat ekitaldi antolatzea da. Arrasaten koadrilen partaidetza zuzenak programa egiteko ohitura luzaroan iraun zuen, baina duela urte batzuk, apurtu egin zen, iaz, Udalaren eskariaren ondorioz, berriro berreskuratu zelarrik. Orduan 18 koadrila bildu ziren, aurtengo San Juanak prestatzeko 28 koadrilako lagunak biltzera heldu direlarik. "San Juanak direla eta, sei edo zazpi bilera egin ditugu. Batzuetan hirurodeiren bat lagun bildu izan gara, baina gutxi batzuen artean erabakitzen dugu dena, jende asko entzutera dator eta ez du ezer aportatzen".

Aurtengorako 600.000 pta.ko aurrekontua dute, eta Udalak joan den asteko Rock jaialdiak sor litza-keen galerak ordaintzeko konpromezua hartuta dauka. Besteak beste, honako ekitaldi hauek antolatu ditu: makalaren igoera, koadrilen arteko txirrindulari lasterketa, zezen jaialdia "Toronto eta bere epotxak", "Hauts gaua", bi rock jaialdia, bata



88ko Santamaseko herri bazkariaren irudi bat

Joan den urtean Udaletxean bi denuntzia jaso ziren, eta argi utzi nahi dugu ez dugula egiten asmo txarrekin. Baina, bada ezpada, jendea ez dadila etorri domekako erropaz jantzita". Aurtengo tanborradan jende gutxi zegoela eta, baserritar jantzita joango den bataloi berezi bat prestatu dute. Beste bitxikeria bat aurtengo pegatinak : San Isidron ateratakoei erantzunez, dragoia astoa (Zigarrolako sinboloa) erretzen ikusten da. Honen atzean, katxondeoa besterik

Batzordekideen ustez, Mondragoeko jendeak jaietan oso jarrera pasiboa hartzen du. Jendeari gauzak kanpotik ikustea gustatzen zaio, inolako pardaidetza izan barik, "voyeurismoa" nagusia da, beraz. "Ematen du hemen jendea oso lotsatia dela. Jendearen pardaidetza bakarrik Maritxu Kajoién eta, pixkat Haratusteekin lortzen da. Jendeak beste herri batzuetara joan behar izaten du desmadratzera. Guk antolatzen ditugun ekitaldi batzuk jendearen lotsa kentzeko balio dezakete".

Lagun hauek jakin badakite ez dutela herriko gazteria ordezkatzen, eta horregatik, hain zuzen, nahi dute jende gehiagoren partaidetza, eta batzordea indartu, urtean zehar hainbat gauza antolatzeko. "Orain arte bezala ezin dugu jarraitu. Gure asmoa lokal bat lortzea eta urte osoan biltzea da, gauzak ondo prestatzeko jarraikortasunaz. Bai jaiak eta bai beste gauza batzuk antolatzeko. Orain, esaterako, Zaldibarreko futbito txapelketa berreskuratu nahi dugu, eta horretan dihardugu."


Bukatzeko, agur beroa bialdu nahi diete herriko presoei. Eta, jo ta fuego!, lau egun besterik ez dira eta.

**"Batzordea indartu nahi dugu.
Gure asmoa urtean zehar biltzea eta
hainbat ekitaldi antolatzea da"**

joan den astean burutu zena eta beste herriko taldeekin, poteoa gona eta patinekin, bazkari herrikoia etab. Egun hauetan "Tronpalari" elefantea, jaien sinboloa, kaleetan ibiliko da. Kalimotxo 300 litro, 1.000 jaizapi eta 500 kilo uruna ("Hauts gaua"rako) ere badute. Ikusten denez, umore ona eta parranda gogoia, nagusi. "Hauts gauari buruz esan gura dugu ez dadila inor haserre.

ez dago.

Programari buruz honako eritzia dute: "Programa urtero antzerakoa da, eta oso zaila da bere egitura aldatzea. 11 milioiko aurrekontua du, baina ume eta aiton-amonentzat ez dago ezer. Guregana etorri etorri dira koadrila gaztetxo batzuk, 12 urtekoak edo, baina guk ezin dugu ezer antolatu eurentzat. Horretarako beste batzorde bat behar da".



1886-VII-25 inaguratu zen Arrasteko azken zezen plaza, "Villa Amparo" eraikitzeko 1910ean bota zena.

Zezenak Arrasaten

AZKUNE, Iñaki: Zezenak Euskal Herrian. Gure baitan dituzten erro luze-ekzutuak. Argitaratzailea: UEU.

1527 Gero Felipe II erregea izango zena jaio zela eta, Arrasaten zezen festak izan ziren. Karlos enperadoreak semearen jaiotza ospatuz zezen bat hil zueneko albiste, ipuin hutsa da.

1631 Aldi hartan Arrasaten ere bazuten zezenak korritzeko ohitura. 1631.eko agiri batek, plazako oholtza eta barrenak aipatzen

ditu. Madalenako ospitalean gordezten omen zituzten.

1634 Urte honetan Arrasaten, harresiaren kontra pasabidea egin zuten, udalgizonek handik zezenak ikus zituzten.

1735 Arrasatera sanjoanetarako Nafarroako Uxanuritik (Arabako Kanpezu ondotik) Jose Martinez Cabrero ganaduzaleari 30 dukat eta 15 errealetan erosita bost zezen ekarri zituzten. Ez ziren hiltzeko zezenak; jokatu ondoren bueltatzekoak baizik.

1745 Arrasaten sanjoanetan Pedro Cascarillo toreatzaileak bere lagunekin lan egi zuen. Zezenak Kalagorritik ekarri eta 52 ekzutu kostatu omen ziren. Agian Pedro Lakarra "Cascarilla" izango zen toreatzailea.

1759 Hilobiratu zuten Pedro Inazio Barrutia Basagoitia euskal idazlea eta Arrasateko eskribaua. "Gabonetako ikuskizuna" izeneko teatro-lana idatzirik utzi zuen. Bertan Aritxabaltxo pertsonaia, zezen-toreadorea agertzen da. Baita zezenetako pasarte batzuk ere: "...Toreadoreak emen dira lasterka niri brindatzera..." adibidez.

1767 6.613 erreal gastatu zituen Udalak zezenetan. Horietako 4.500 erreal, Kristobal Guridiri eman zizkioten korridaketa nobillada antolatzeagatik. Hamalau zezen hil ziren Arrasaten.

1767.eko zezenetan. Dirudienez, kotxe-bide berria estreinatzeagatik ohizkanpoko korridak prestatu zituzten arrasatearrek.

1770 Arrasaten obrak egin zituzten zezeneterako. Barrera berriak, zazpi toril, hamar ate, etab. 1.056 erreal kostatu ziren.* Arrasaten 1863. urteko Urriaren 15ean, Bernardino Melgar jauna jaio zen; gero San Juan de Piedras Albas-eko markes eta Avilan tauromaki museoaren jabe izango zen aristokrata, hain zuzen.

AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES

IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

1866. urteko agiri batean, Arrasaten nobilladak Santo Tomas eguneko feriatan bakarrik izaten zirela dio.

1876. urte inguruan Deban San Roketan nobilladak urtero izaten ziren eta Antonio Zugasti "Ixkiña" izeneko zapatari eta bertsolari xelebrea ere izaten zen toreatzen, Hondarribia, Azpeitia, Arrasate eta beste herri batzuetan bezalaxe.

1885. urtean Arrasaten zezenzaleen elkarte bat osatu zen, eta Rikardo Añibarro lehendakariak berehala eskatu zior. Udalari zezenplaza egiteko baimena. Plaza polita egin zuten, bere eserleku, balkoi-dun palko eta abarrekin. Kailejorik ez zuen plaza hartan, 2.360 ikuslerentzako tokiak zegoen.

1895. Abuztu hartantxe, hilaren 8an Arrasateko Santa Ageda bainuetxean Angiolillo anarkistak Canovas del Castillo hil zuen. Angiolillo suitzarra, Enrique Alvarez gazte tolosarrak harrapatu zuen. Gero nobillada batzuetan Azpeitian aritu omen zen zezenzale eta atxilotzaile hura.

1898. urteko Irailaren 26an, Arrasaten Zipriano Loidi jaio zen. Gero "Mondragón" goitizinez nobilladatan parte hartu zuen.

1900 Arrasaten ere santiagotan ematen ziren nobilladak bertako zezenplazan.

1902 Graziano Anduagarren bertsoak:



Sokamuturra antzinako usarioa

- 10/ Berialatik pentsatu zuten zezen berria ekartzeko Mondragoera eraman eta lengo zar ori saltzeko, kapaz zala ura ermandadien onore dana galtzeko komenentzia onik izaten bazan urrutira bialtzeko erostunikan bazetorkien begietatik kentzeko.
- 16/ Posez beterik zezen berria bere oneen zanian bestearekin Mondraguera lendabiziko perian animalia ibillia zan estimazio onian bere tratua egifta zuten allegatu ziranian iru itzetzan konformatua erostunen esanian

1910 Arrasaten urte honetan eman ziren azken nobilladak 24 urte

lehenago estreinatuta zen zezenplazan. Plaza hura, gero "Villa Amparo" txaleta egondako lekuan zegoen; Aramaio ibaiaren ondoan.

1918 Zipriano Loidi arrasatearra 1918.ean hasi zen toreatzen, Vista Alegren "nobel"entzako nobillada batean parte hartu bait zuen.

1923 Zipriano Loidi toreatzailea, 25 urte lehenago Arrasateko Garagartza auzoan jaio zen Akixo baserrian. 1923. urtean ordea, Garagartzan bertan toreatu zuen. Durango, Bilbo, Santander eta abarretan ere toreatzen aritu zen arrasatearra, beti ere maila apa-lean.

Jose del Oso berriz, Donostian bizitzen eta inguruko nobilladatan toreatzen zuen.


LASAGABASTER

Jantzidenda

Jaietan ere zuekin

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97

Lagunak Oro Lagun Aron



Enpresakoak

Ondasunetakoak

Pertsonalak

Nekazaritzakoak

Lagun Aro Aseguruetan gure herriari konfidantza osoa eskeini diegu, eta berak, gogotik igorri digu. Horregatik, gure ahalmen aseguratzailea hobetzen saiatzen gara, Euskalerriko bezero guztiari zerbitzu onena emateko asmoz.

Lagun Aron poliza mota zabala daukagu, estaldura sendoenekin, une bakoitzean klienteei seguritate gorena eskeintzea posibilitatzen diguna.

Lagun Aro Europara begira dago, europar sendietatik % 20a aseguratzen duen Europako Kooperatiba Aseguruen Elkarteko partaide bezala.

LAGUN ARO
SEGUROS ASEGURUAK

Lan Kide Aurrezkoa Taldekoa

“Gure herriaren historia aztertzen hasi eta berehala egiten duzu zezenekin topo”

Iñaki Azkune zeztuarrak, “Zezenak Euskal Herrian” liburua kaleratu berri du. Liburu mardula benetan, mila orrialdetan zezenekin zerikusia duten datu ugari biltzen ditu; interpretazio lanik egin gabe ordea, lan hau gerorako utzi bait du. Iñakik, gaur egun, *Elhuyar* aldizkarian egiten du lan. Gaurkoan berarekin hitz egin nahi izan dugu, gai eztabaidagarri honen inguruan zerbait gehiago jakin nahian.

— Arrasate Press: Nolatan bururatu zitzaizun zezenei buruzko liburua idaztea?

— Iñaki: Nik zezen zaletasuna betidanik izan dut, eta horrez gain istoria aztertzeko afizioa ere izan dut. Gure herriaren, hau da, Euskal Herriaren. Historia aztertzen hasi eta berehala egiten duzu zezenekin topo. Arrasaten ere, Jose Letona historiagilea izan zenuten, eta harek ere, zezenei buruzko datu ugari bildu zituen.

Bestalde, zezenen oso gai ezzaguna da, maiz bere inguruaz hitz egiten da, baina gauza garbirik jakin gabe. Gure folklorea oso txertatuta dagoen gaia da. Liburua idaztera ez ninduen arrazoi batek bultzatu. Arrazoiak ugari dira.

— Zezenek Euskal Herrian, badute esanahi berezirik?

— Zezenak aintzinatik, milaka urtetik hona daude gure kulturaren txertatuta. Gaurko zezena Urotik dator, eta abere hau, Uroa, due-

“Zezen suharra bizirik, korridak burutu diren lekuetan gorde da”

la milaka urte Euskal Herrian bizi zen. Lezetxikin hain zuzen, abere honen hezurak aurkitu dira. Aspaldian, gizonak zezenekin bizi behar zuen, eguneroko bizitzan berarekin topo egiten zuen. Ekonomiaren parte zen eta beste joku askorekin gertatu izan den bezala, laneko arazo horiek plazaratu egin zituen, aizkolariekin edo harri jasotzaileekin edota beste plazako joku askorekin gertatu izan den bezalaxe.



Iñaki Azkune, “Zezenak Euskal Herrian” liburuaren egilea

— Euskal Herrian, entzierroez, sokamuturrez eta zezenketez gain, beste zezen-jokurik ezagutu al da?

— Beno, aipatu gabe utzi duzu suzko zezena, gaur egun joku mekanikoa da, baina garai batean benetako zezenekin egiten zen.

Bestalde, hemen gutxitan praktikatu bada, rejoneoa ere aipa dezakegu aristokraten, jauntxoek jokua zen eta. Iparraldean zezenketa goieskoa egin izan da, gaur egun Landetan, egiten denaren antzekoa.

Entzierroez hitz egiterakoan, bi entzierro mota aipatu beharko dugu. Bata, festa egunetan egiten zena,

zezenak kortatik plazara eramateko egiten zena eta bestea ganadu zaleek burutzen zutena. Bigarren mota hau, zezenak menditik herrira jaisteko burutzen zen.

Arrasatera ere 1745. urtean Kalagorritik horrela eraman zituzten zezenak.

— Dena dela, gaur egungo korridak euskaldunak direla esan daiteke?

— Nik baietz esango nuke. Zezenketaren atal batzuk aztertuz gero behintzat, ondorio horretara hel gaitzake. Gaur egungo zezenketa erabiltzen den kapotearen lehenengo arrastoak Euskal Herrian aurkituko

ditugu. Banderilak ere guztiz euskaldunak ditugu. Banderilak, Goiak marraztu zituen eta banderilak ipintzen lehen aldiz Nafarroan hasi ziren. Muleta ere, Martintxo toreatzaileak erabiltzen zuen nafar erara. Egia da gerora toreatzaile andaluzek findu zutela euskal torea, baina zailtzarrik gabe zezenketa ere hemengo da, ez da inportatutakoa. Euskalduna, toreatzaile atletikoa zen eta andaluz finagoa.

— Gaur egun, leku askotan zezenketa aurkako mugimenduak daude, zezenketa eta orohar aberekin burutzen diren jolasak basakeriak baino ez direla entzuten da. Zuk horren aurrean zer esango zenuke?

— Nik jendeari, fenomenoa barrutik ezagutzea eskatuko nioke. Zezen suharra bizirik, korridak burutu diren lekuetan mantendu da. Beste lurraldeetan desagertu egin da. Bestalde, gaur egun zezenketa, oso araututa daude, plazan hil ezinik dabilenak txistuak entzuten ditu.

Zezenak lau urtez mendian, bere ekosisteman, bizi direla ere kontutan izatekoa da. Guzti hori zezen-zaleek mantentzen dute. Zezenen inguruan gezur ugari ere entzun izan da, zezenei jaten ondo ez zaiela ematen, tratu txarrak jasotzen dituztela, etab. Guzti hori gezurra da. Fenomenoa barrutik ezagutuz gero, horrelako gauzarik ez litzateke entzungo

SAN JUAN BAUTISTA
Mondragoeko eresi nagusia

Ez dau iñun gizonik
San Juan dan baizen
santu goitar ta aundirik
arkitzen.

Bera da Jaunen Seme zuzena
Jordanen batiau ebana.

Entzun, gizonak, entzun, erriak,
San Juanen doe miragarriak.
Gora, gizonak, abestu, erriak,
San Juanen doe goragarriak.


Amagan ziñala
Jaunak eutzun deitu,
ordutik ziñuzan maitatu.

Ume au aundia
izan dedin betik
Goikoak daroa eskutik.

Ama sengeagandik
zu jaio ziñan,
Mirariz beterik
DONE-IBAN

Entzun, gizonak, entzun erriak,
San Juanen doe miragarriak,
Gora, gizonak doe miragarriak,
Gora, gizonak, abestu, erriak,
San Juanen doe goragarriak.
Goragarriak!!
Goragarriak!!!!

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea. Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

Enrike Alonso: "Lehen heltzen denak, azken heltzen denak beste sufritzen du"

Enrike Alonso txirrindularia, Arrasatek duen txirrindulari profesional bakarra dugu. Aurtengoa izan da bere lehen denboraldia profesionalarekin eta oso ondo aritu dela esan daiteke, Asturiaseko itzulian 5a. izanik edota Espainiako itzulia bukatuz. Eibarko Bizikleta Arrasate inguruan bueltaka izan genuen pasa den astean, eta bertan ere parte hartu zuen Enrikek. Beraz, aste honetan atsedendia izango zuela suposatuz, gure orri hauetara ekartzea pentsatu dugu, txirrindularitzaz beste zerbait jakiteko asmoz.

— Arrasate Press: Txirrindularitzak kirol gogorra izateko ospea du, zerk bultzatzen zaituzte, edo zein eragingarri duzue horretan aritzeko?

— Enrike: Une honetan, profesionala naizelarik, nire aliziente edo eragingarri bakarra dirua da. Gaztea zarenean, ospea izatean eta, kirola egitean pentsatzen duzu, baina profesional bihurtzean, gauzak aldatu egiten dira eta dirua da duzun aliziente bakarra. Besterik ez dago.


— Aurtengoa izan da profesionalarekin burutu duzun lehen denboraldia, uste bazon gogorragoa edo errezagoa suertatu zaizu?

— Beno, Espainiako Itzulia esaterako, ez zait oso gogorra suertatu. Ez nuen inolako erantzunkizunik, Eibarko Bizikletan edo Euskal Herriko itzulian izan nezakeen bezala. Espainiako itzulira joan eta zerbait

duzu, forma onean baldin bazaude oinazea jasan behar izaten duzu, baina gustora joaten zara. Edozein modutan sufritu, denok egiten dugu.

— Aurtengo denboraldian hain ondo ibili ondoren, egunkariek "promesa gaztea" hitzak erabiltzen dituzte zuri buruz hitz egiterakoan. Horrek erantzunkizun handia suposatzen al du?

— Beno, zutaz espero dena baino gutxiago egiten baldin baduzu, gauza txarra da. Une honetan, Julian Gorosperi gertatzen ari zaio hori. Mundu guztia "manta" dela esaten ari da eta hori ez da horrela. Txirrindulari ona da, baina egiten ari dena baino askoz gehiago egitea espero da. Hori ikusiz gero, erantzunkizuna da zutaz hori esaten aritzea egunkarrietan. Dena dela, lasterketetan ahal duzuna egiten duzu, egunkarrietan esaten denaz pentsatu gabe.



Enrike Alonso

jaso dut, baina oraindik erabakitzeko dut zein taldetara joan. Eskaintza, ONCEk, Puertas Mavisa, SEUR eta Zahor-ek egin didate. Nik Zahor eta ONCE taldeen artean erabaki behar dut, baina ez dakit zer egin.

— Ez litzazuke Tour-ean edo, aritzea gustatuko?

— Beno, ONCEra joanez gero egin beharko dut, ekipo horrek lasterketa horretan eta Giroan hartzen du parte eta. Zahorrek nire gaur egungo ekipoak, Giroa egiten du, aurten egin ez badu ere. Beraz, datorren urtean bata ala bestea egin beharko dut.

Dena dela, datorren urtean ez dut Tour-ean aritu nahi, Espainiako Itzuliarekin nahikoa dut eta. Lasterketa gehiegitan parte hartzea, hanka sartzea da. Aurten, kompetizioan 60ren bat egun daramatzat eta denboraldia 80 edo 85 egunekin burutuko dut. Egun horiek baino gehiago egingo banitu, urte gutxitan erreko nintzateke. Hogeitazortzi urte inguruko jendeak egin ditzake 100 edo 110 egun kompetizioan, baina gaztea zarenean 80 egun baino gehiago egitea gehiegizkoa da. Guk dugun adinarekin urtean lasterketa handi batean parte hartzearekin nahiko dugu.

Gaztea zarenean, gorputza egotera onean, kilometro gutxi egin ondoren jartzen duzu; adinarekin, gero eta kilometro gehiago behar duzu horretarako.

"Txirrindulari gazteek urtean ez dute kompetizio-egun gehiegi egin behar; bestela urte gutxitan erre liteke"

egiteko aukera izanez gero, egingo nuela pentsatzen nuen. Itzulia bukatu arte egunak pasatzen utzi baino ez nuen egin behar. Dena dela, ezin da gonbaratu bost eguneko frogatik bat Euskal Herriko itzulia esaterako, 22 eguneko batekin.

— Esaten den beste sufritzen duzue?


— Bai, bizikleta gainean sufritzen da. Dena dela, sufritzeko erak eta erak daude. Hala ere, lehen heltzen denak, azken heltzen denak bezain beste jasan behar izaten du, nahiz eta desberdina izan. Txirrindularitzan... Itzuli batean, lehen postuetan joanez gero, gustora sufritzen

— Denboraldia bukatzeko lasterketa asko duzu egiteko?

— Oporrak baino lehen Murtzian ospatuko den Espainiako Txapelketa dugu, ondoren Tour-era joango ez garenez, Uztailean oporrak izango ditugu eta ondoren denboraldia bukatu baino lehen, Abuztuan, Burgos, Galicia eta Cataluñako birak eta Donostiako Klasika ditugu. Nire ekipoa frogatik guzti horietara joango da, baina nik ez dakit zenbatetan hartuko dudana parte.

— Datorren urterako ONCE ekipoak eskaintza luzatu dizula entzun da, egia al da?

— Eskaintza bat baino gehiago



Prejubenileen finalaren momentu bat



Finalista guztiak

San Juan Txapelketaren Finalak

Aurtengo Pilotako San Juan Txapelketa amaitu zen joan den larunbatean Iturrieko frontoian. Lehiaketa hau Urrian hasten da urtero, San Juan inguruan bukatzeko. Oraingo honetan, lau sailetan banatuta, 300 mutil baino gehiagok hartu dute esku. Itxura onak ikusi ziren pilotaren etorkizuna diren mutil gazte hauengan. Finalak horrela bukatu ziren:

Benjamin mailan: Lizarralde eta

Betuzen-ek, 18; Moreno I. eta Zuzubiskar-ek, 13.

Alebinak: Etxeberria eta Bernaluze-k, 18; Murgoitio eta Altubek, 12.

Infantilak: Errasti eta Zugasti-k, 18; Abarrategi eta Azkarate-k, 12.

Gazteurrekoak: Jon Goikoetxea eta Zuazubiskar-ek, 17; Etor Goikoetxea eta Korta-k, 22.

Bata bukatu eta bestea hasi. Da-

torren Uztailaren 9an Gipuzkoako XXII. Herri Artekoari tokatuko zaio txanda. Bertan, 19 herritako pilotariek, infantil, gazte eta senior mailetan, hiru bikote dakoitzeko, hartuko dute parte. Bailarari gagokionez, Onati, Aretxabaleta, Antzuola, Elgeta, Bergara, eta Arrasateren ordezkariak izango ditugu bertan. Arrasatekoek, lehenengoan, Aramakoen kontra jokatuko dute.

Rugby: beteranoek, 12; Arrasate Kirolak-ek, 0.

Emaitza harrigarri honetaz bukatu zen jokalariorioiak eta aurtengo plantilaren arteko partidua. Ez dakigu gazteok errelatatuko ziren ala ez, baina azkenean esperientzadunen jakinduria nagusitu zen. Berango eta Eugenio Aranaren entsaiuak, Agustín Aranburu eta Jose Luis Heriz-ek transformatu zituzten. Beteranoen aldetik, honako hauek jokatu zituzten: Juanandra, Gallo, Angelote Guridi, Luison, Pepe Arregi, Donosti, Hechicero, Txile, Xeferino Mondragón, Titi, Unzueta, Mozo, Txus, Txanton, Txerra Mendizabal, Fontanero, Berango, Aranburu, Txosa, Txarli, Urizar, Arana, Pello Iriart, Txosa eta Heriz. Hori sasoia!

San Juanetan sartuta, 24ean 12etan, Iturripen Arrasate Kirolak eta Baionako Hor Konpon-en arteko Rugby partidua izango da. Iparraldekoek txaranga eta guzti ekarriko omen dituzte.



Arbitroa beteranoen taldean aritu zen

ATOR



PEUGEOT TALBOT INDAR DINAMIKOA

**P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA**

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75

podiuma

Mirari Armendia, igerilaria

Mirari Armendia aletazko igeriketako Espainiako txapelduna dugu, 50 m. acnea, hots, ur azpitik; eta 100 eta 400 m. eskafrandan, hau da, oxigenozko botelari. INEFeko 1. urteko ikaslea da Canariasetan. Uztailaren amaieran Espainiako txapelketan, eta Abuztuaren 6tik 15era, Idoia Mendikute eta Inma Floresekin batera, SESB-en izango da, Europako Txapelketan. Espainiako selekzioan hiru arrasatear izango dira, eta honegatik gure harridura erakutsi diogu. "Modalitate hau bakarrik Barcelonan, Murcian, eta Euskadin praktikatzen da, Arrasaten eta Ordizian, batipat. Hona Luis Marinek ekarri zuen, eta lan ona egin du".

Lehen aletazko txapelketetan klasikoan jendea aurkezten zen, bi modalitateak tartekatuz. Orain, ostera, prestaketa eskusiboa eskatzen du. Aletazkoek entrenamendu gogorak egiten dituzte sikuan. Salto, lasterketa eta pesetan oinarritutako entrenamenduak, hain zuzen.

Mirari leitsinatuta egon da, "6 aste eskaiolaz ibili naiz. Peronneko artea (fisura) izan dut, ez dakit nola egongo naizen txapelketan". Aletazko igeriketa Barcelonan kirol olimpikoa izango dela diote, eta Mirarik ilusio handia dauka bertan egoteko, "edozein kirolarientzat ilusio handiena horixe da. eta Orain arte ez da izan olinpikoa USAkoako oso txarrak direlako Munduko one-



Mirari, Espainiako txapelduna

nak, SESB, Txina, Ekialdeko lurraldeak eta Italia dira. Azken honek badauka arrazoi bat: moraletak (erabiltzen ditugun aletak) Italian bakarrik egiten dira".

Canariasetan oso gustora dagoela aitortu digu, eta ikasketak ere ondo doazkio. "INEFen oso gogorra da sartzea, niri bi urte kostatu zait. Gasteizen sartzeko 71. postuan gelditu nintzen, eta 70 sartu ziren". Espainiako txapelduna izanda, nola kostatu zaion hainbeste galdetu diogu, "gauza asko sartzen ziren: selektibitateko nota, euskara eta proba ezberdin asko daude. Espainiako txapeldunak izatea ez dauka zerikusirik". Bost ikasturte dira, eta azkenengoan espezialitate bat aukeratu behar da, "ez dakit igeriketa edo atletismoa aukeratuko dudana. Atletismoak, lan egiteko, aukera gehiago ditu, edozein kirolerentzat entrenamenduak atletismoan oinarritzen bait dira".

Hiru urte barru Barcelonan ikusiko dugu.

Mondra: entrenatzaile berria
Pello Bengoetxea ondarrutarra izango da datorren denboraldian Mondrako entrenatzaile berria. Pello Gasteizen bizi da eta azkenengo lau denboraldiak hiri honetako Aurrera entrenatzen ibili da. Astelehenan bertan Albaceteraino joan zen entrenatzaile titulu nazionala lortzera.

Gay: Euskadiko txapelduna eta Europarako gutxienezkoa
Asteburu beren bi garaipenekin eskuratu zituen atleta honek. Larunbatean, Segoviako "Objetivo-92" mitinean, eta TVEko kamaren aurrean, José Antoniok 200m.tan 21,57ko marka bateaz Europako junior txapelketarako gutxienezkoa lortu zuen. Segunduko zazpi hamarren sobratu zitzaizkion, beraz. Eta hurrengo egunean, igandea, Euskadiko txapelduna suertatu zen Getxon luzeera berdinean, 22,03 bateaz. Txapelketa honetan B. Alonso pertikistak zilarrezkoa ekarri zuen: 3,85 m., eta Jose Luis Caballero brontzezkoa 400 m. hezian: 58,32.

San Juanetan Kirolak

larunbatean: 10etan: Arrasateko Futbol Txapelketaren azkenak Kiroldegian. Infantil, Alebin eta Benjamin mailak. **12etan: Rugby Iturripen:** Arrasate Kirolak - Hor Konpon. **Setan: Futbola Atxabalpen:** Pedrusko - Euskal selekzioa. **igandean: 9etan: Txirrindulari Lasterketa** afizionatuentzat. **10etan:** Biterin, aldi bereko Xake partidak. **11etan: Goitibehera txapelketa,** Olandixotik. **12etan: emakumezkoen futbola,** Atxabalpen, Okendo-Urki.

Denborapasen soluzioak

Aritgrama

$$[(5X3+6):7+2]X2+6=32$$

“ PAL ”

burdindegia, brikolage eta tresneria

Uribarri etorbidea,3
Tfnoa 79 31 99

**M
A**

ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkaia, 1 Tfnoa: 79 08 07
Aretxabaleta



BELUN

Lagunarte bikaina

Garagartza Auzoa,z/g Tfnoa:796114

Krimenaren kantoia

Halaxe esaten zioten gure arbasok Zurgin-kantoiari, bertan hil bait zuten 1816.eko azaroaren 17an On Santiago Elias de Aranguren jauna, Monerroneko kontea, fusilaren katua sakatu zuena zein izan zen inoiz jakin ez delarik.

Baina anekdotak alde batera utziz, besterik konta daiteke Ertaroko kantoi honi buruz, non zurginen gremioa kokatzen bait zen garai batetan, guzti hartatik izenaz beste ezer geratu ez bazaigu ere. Berau ixten duen uztai edo arkoa, Zurgin-kantoi atea, alegia, aintzina herriak zituen bost atetariko bat da. Egun hiru atek diraute zutik; beste biak, Gazteluondokoa eta Olarteko kantoikoa, mende honen hasieran desagertu ziren.

Esan behar gainera Zurginkan-



Zurgin-kantoi

toiko uztai herriko zaharrena dela, izan zuen lehena. Zenbait teoriak

Antso Abarka nafar erregearen agintaldian kokatzen dute bere sorrera. Errege hau izan zen, oraindik gure herria Nafarroako Erresumaren baitan zegoenean, harresi eta gazteluaren eraikuntza agindu zuena. Beraz, honako hau Arrasateko aztarnarik zaharrenetako bat izan daiteke, 960. urte ingurukoa, beharbada.

Ate honek egun uztai eta harraria (baliteke berari hasera batetan zegokiona ez izatea) besterik ez du gordetzen, alboetan aintzinako harrisiaren sendoera agerian uzten duelarik. Eta nahiz eta zementozaleen erasoaren ondoren itxura nahiko goibela agertzen duen, pozgarria da aztarna artistikoa ia milenario bat oraindik zutik ikusi ahal izatea, hainbeste historia eta istorioren lekuko.

M. Arregi



IRAKASLE ESKOLA

AURREINSKRIPZIO-EPEA

1989-1990 ikasturteko izena emateko epea ekainak 1-ean zabalitzen da.


Informazioa: IRAKASLE ESKOLA
Eskoriatza (Gipuzkoa)
Tfnoa: 79 04 40

Autoen atzeko gurpilek adimentsu bihurtzen ari

Autoen atzeko gurpilek lerdo samarrak izan dira oraintsu arte. Ez zuten aparteko lanik egiten, ia aurrekoei jaraitzea besterik ez. Aurrekoak bai, aurreko gurpilek autoari mugimendua eragiten zioten, norabidea ere berauek markatzen zuten eta frenatzerakoan, berriz, nahiz eta laurak franatu, aurrekoek egiten zuten lanik garrantzitsuena eta atzekoek laguntzailearena.

Baina gauzak ez dira betirako izaten eta teknika kontutan, are gutxiago. Eta atzeko gurpilei ere iristen ari zaie beren patu tristeari uko egiteko garaia. Izan ere, atzeko gurpil lerdoak adimentsu bilakatzen ari dira.

Begiratze eta saiatzearen podoeriaz, lehendabizi eragile izaten ikasi dute, aurrekoek bezala. Dagoeneko auto askotan dira lau gurpilek eragileak, hau da, lau gurpilek eragiten



diote mugimendua autoari. Eta honnek abantaila handiak ekarri ditu, hala nola, zoru bustietan labantzeko arriskua gutxitzea edo bihurgunak bizkor hartzean autoaren segurtasuna areagotzea.

Orain, berriz, atzeko gurpilek, aurrekoak bezala, direkzio-gurpil bilakatu dira, hau da, bolantearen aginduei erantzuten ikasi dute. Maz-


da autoetxe japoniarrak aurkeztu berri duen 626 modeloan gertatu da mirari hau. Eta kasu honetan, gainera, atzeko gurpilek aurrekoak baino argiago izatera iritsi dira. Izan ere, autoa geldirik edo maniobratzen ari denean, atzeko gurpilek aurrekoen mugimenduaren kontrako egiten dute, eta honela bolanteari gutxiago eragin behar zaio autoa jirarazteko. Aldiz, autoa orduko 35km.tatik gora doanean, atzeko gurpilek aurrekoen mugimendu berdina egiten dute, autoak bihurguneetan hartzen duen balantza gutxiagotuz eta bihurgunak ondo hartzea erraztuz.

Gauzak ez dira, ez, betirako izaten. Eta zisne bilakatu zen ahate zaharra bezala, autoen atzeko gurpil lerdoak adimentsu bihurtzen ari dira.

Mikel Intxausti

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Billegia: Bidekruzeta 1. Tfnoa: 79 23 18 ARRASATE

Iosu

argazki denda

- * ARGAZKILARITZARAKO MATERIALA
- *ERREPORTAIK
- *BISUTERIA

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

VE ECUADOR

Kontzesiño 2, Tfnoa: 79 14 06

Kanoi Boutique
zorionak opa dizkizue!



Europako Huteskundeetako Emaitzak:

EA LEHENA...

Huteskundeetan erabilitako propaganda materiala jasotzen eta biltzen

Noski!

Bere kanpaina garbiaren proiektu barruan.

KANPAINA GARBIA HERRI GARBIA

Ekaina, azterketak, suspentsoak, aprobatuak...

Zaila da gai honetaz hitz egitea, ez bait daude bi kasu berdinak. Etxe bakoitza, familia bakoitza, haur bakoitza ezberdina da. Bestalde, ba al dago erremediorik? Ala errealitate triste samar hau onartzea edo, bestela, haserretzea al da geratzen zaigun irtenbide bakarra?

Haurraren errendimendua ebaluatzen da Ekainean. Nota onak ateratzen baditu, haurra gai dela eta lana ondo egin duela aterako dugu ondorio gisa. Nota txarrak ateratzen baditu, bai haurraren gaitasuna eta lana, baita irakaslearen kalitatea ere, zalantzan jarriko ditugu.

Izan ere, haurra da bere lanaren arduraduna eta; irakasleak, bere aldetik, eragin zuzen eta efikaza izan dezake eskolako lanean.

Baina badago beste zenbait elementu ere haurraren lanean eragina duena eta, konturatu gabe, horiek ere ebaluatzen dira Ekainean. Hona hemen horietariko batzuk: egiten duen horretarako haurra motibatua

sentitzea ala ez; gurasoak ere motibatua sentitzea eta berauek haurra motibatzea; haurrak bere buruaz duen irudia: izan ere, bere buruaz konfidantza duenak seguritate handiagoz ekingo bait dio edozein lan, haurrari buruz nagusiok -batez ere, guraso eta irakasleok- dugun irudia eta berarengandik espero duguna; etxean, eskolan eta lagunekin gustora sentitzea haurra; bere denbora antolatzen jakitea haurrak; ikasten jakitea; lanerako toki egokia izatea etxean; egiten duena norbaitentzat garrantzitsua dela eta norbaitek baloratuko duela jakitea...

Guzti hauek haurraren/ikaslearen errendimenduan eragina duten elementuak dira. Ondorioz, nagusiok ere, batez ere, guraso eta irakasleok, ebaluatua izaten gara Ekainean. Ez da bakarrik haurrak zer egin duen ikustea, geuk zer egin dugun ere aztertu behar dugu.

Zalantzarik gabe, ebaluazio baten guztarik tristeena, sus-

pentsoak daudenean- haurrak izan lezakeen eta aurrera jarraitzea oztopa liezaiokeen porrotaren bibeztzia izaten da.

Agian, hor egon daiteke gure lana: suspentso bat, bi, hiru... ateratzeak ez du esan nahi haurrak erabat tontoak direnik, ezta beraien etorkizuna hipotekatua dagoenik ere. Heziketa ez da momentu batean egiten den zerbait, gelditzen ez den prozesu luze eta etengabea baizik.

Eta guk, nagusiok -guraso eta irakasleok-, zer egin? Zein da gure betebeharra? Haurrari aztertzen laguntzea non dagoen, zergatik dagoen hor, zer egin duen eta zer ez duen egin; errekerperatuz joan dadin orientabideak eskaintzea; eta bakoitzari -haurrari, eskolari eta nagusioi- dagokigun erantzunkizuna aurkitzea.

Klarion taldea.

Juanjo, Marian, Nerea eta Matilde



omu mosaikoak

Zeramika-Erakusketa: Otalora Ilean

Biltegi berria: Meatz-Erreka

ARRASATE

J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOA

Azal, ile eta atzazalaren gaixotasunak
Azaleko alergia

Lagun Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa—Adeslas—Previsa—Ipresa

Kontsultak arratsaldetan

Otalora Lizentziatua 29, 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE

ANDERE

*Bainu eta
sukaldeko*

ALTZARIAK

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

*Sukaldeko altzariak neurrira egin eta ezarri.

*Lehen mailako elektretresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurrira ezartzekoak.

*Egituraketa proiektuak konpromesurik gabe.

*Diseinu altzarietan trebatuak gara.

TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea, 8
ARRASATE

MARTINEZ

aroztegia

Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak

Araba Etorbidea, 13
Tfnoa: 79 22 81/ 79 18 41

Maiatz

ILEAPAINDEGIA
mixtoa

Elkano, 38 (Musakola)
Tfnoa: 79 58 78
ARRASATE

Gaixotasun kardiobaskularrak Arrasaten

Gaitz kardiobaskularrak, arteriosklerosia batez ere, indutrializatutako herrietan hilkortasunaren lehenengo zergatia dugu.

Arteriosklerosia ez da bapatean agertzen den gaitz horietakoa. Haurtzaroan, agian, hasi eta adin helduetan agertuko da. Arteria koronarioaren arteriosklerosia, bularreko angina, bihotz-giharreko infartua, bapateko heriotza eta bihotzeko ezina sortzen ditu.

Garunetakoak, berriz, garun-basoetako istripua edo trombosisa; hauek heriotza ekar dezakete, edo bestela, elbarrituta uzteko edo beste edozein lesio sortzeko arriskua dago.

Beheko gorputz-adarretan berriz, zangoetan hain zuzen, odola gutxiago pasatzen da; horrela, ibiltzen hasterakoan, mina agertzen da, min hau zangoetan, izterretan eta ipurtaldean kokatzen da bereziki; berrehun metro, edo zainen egoeraren arabera ibilaldi luzeago bat egin

ondoren, geratzerakoan oinazea gutxitu egiten da, berriro ibiltzeari ekiten zaionean agertzen delarik. Horregatik aldizkako klaudikazioa bezala ezagutzen da.

Hipertentsioa, koloesterol kopuru handia, tabakoa, sedentarismoa dira horretara bultzatzen gaituzten faktore garrantzitsuenak, edo behintzat, erraztasun handiagoa izango dugu hauekin gaitza geureganatzeko.


Menopausia aurretik arraroa izaten da gaitz hau emakumeen artean, baina agertzen denean, gizonen hilkortasunaren parekoa izaten da haien artean ere.

Gure herria, Arrasate, ez da salbuespen bat eta 1980. urtetik honako hilkortasuna aztertu ondoren ikusi dugunez, gizon eta emakumeen arteko herioaren zergati nagusia bertan ere hauxe dugu, batez ere grafikan ikus dezakezunez emakumeen artean

Kausa honengatik hilkortasuna 1980 eta 1985 urte bitartean gutxitu bazen, igotzen hasi da geroztik eta goraka doa, protzentaia haundietara iritsiz.

Horregatik erne egon behar dugu XX. mendeko izurriari, aurre egiteko, prebentzioaren bidez, batez ere.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*



AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- gogorrak
- porodunak
- bigunak
- kosmetikoak
- erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa !

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea, 6
Tfnoa: 79 25 98

ARRASATE

Osteratxo bat mendi edo basoko bizikletan

Gaur hasi eta hurrengo aleetan mendiko bizikletaren mundua ekarriko dugu orriotara, aspaldi honetan ondo baino hobeto hedatu zaigun kirol hau ezagutzeko. (Batek daki, hurrengoan bat edo batek frogatu egin eta martxan jarriko ote zaigun).

Mendira sarri askotan joaten garenok, noiz edo noiz topo egin dugu bizikleta mota berri honekin. Alde batetik, gurgil zabalak, bideetan dabilazaten horiek baino txikiagoak, zabalagoak; pifioi ugari (6.3) eta gainera, neurri askotakoak, balazta bereziak... (guzti hau beste batean aztertuko dugu, gune guztiak aztertu eta egungo bizikleta berriaren zirrikitu guztiak ezagutzeko asmoz).

Beraz, nork ez dio bere buruari galdetu: zermolakoak ote dira bizikleta berri hauek? Zertarako balioko ote dute? Zer baliabide eskeintzen du bizikleta-mota berri honek?

Gure buruan jiraka dabilen galdera andana. Agian, ez dute behar bezalako eta bidezko erantzunik, baina zalantzarik gabe, jende mordoak heldu dio kirol berri honek eskaintzen duen xarmari.




Bestalde, bizikletazaleentzat eta egungo mendira joan ez direnentzat, ba, aukera ezin hobea, bizikletan ibili eta era berean, bailara eta zokoetako bazterrak ezagutzeko. Beraz, badugu beste baliabide bat, lilulaturik utziko eta laga gaituena, edozein bide eta errepide zeharkatzeko, eta baserri-inguruetako gurdibide eta basoetako pista berrietatik deslitzatzeko.

Ezbairik gabe, aho zabalik utzi gaitu hondartza, errekaondo, basozelai eta abarretan zehar dabilen bizikleta honek. Gainera, naturazale ororentzat, perspektiba berri baten aurkikuntza izango da. Beste tresna batzuk legez, piragua esaterako, ingurugiroarekiko errespetua duen garrabiobide da. Euskal Herria eta Europa osoan, batez ere, Frantzia, Alemania eta Britania Handian egunetik egunera gero eta zale gehiago du.

Osterak ez dira hor geratuko, kompetizioa eta ibilaldiak nonnahi eta edonoiz ari dira gertatzen eta: duela gutxi Arrasaten, Olabarrietako jaietan Oñatin...

Baina, zalantzarik gabe, ibilaldi eta osterak honen alderdirik nagusiena eta garrantzitsuena bakarrik edo taldean egiten diren irteeretan dugu: giza harremanak, komunikazio berriak, mapen azterketa, ibilbidearen aukerak, zailtasunak; ematen dituen aukerak oso zabalak direlarik. Badugu, beraz, kirol mota hau praktikatzen hasteko aitzakiarik.


K. U.



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHO GINTZA

20.500 ARRASATE



HIRU S.A MEKANIZAZIOAK

- * Doitasunezko mekanizazioa plano eta langilen arabera
 - * Fresatzeko makinak
 - * Zenbakizko kontrola
 - * Mekanizazio - zentruak
 - * Tornuak
- * Artezteko makinak, etab.

Zaldispe kalea, 10 ARRASATE Tfnoak:79 67 80 79 05 61

Posta kutxa 95 .Telefax:79 80 97



Paco Obregon

Teatro Geroa

Mario Onaindia

ANTZERKIA

Uztailak 1,
LARUNBATA


MONTERRON
PARKEAN

(Euria eginez gero
Polikiroldegian)

Gaueko 10,30

300 Pta.

ARRASATEKO UDALEKO KULTURA BATZORDEA



Gamei, S.A.

**MARRUSKADURAZKO PRENTSAK
PRENTSA ESZENTRIKOAK
PRENTSA HIDRAULIKOAK
TORLOJODUN ERAUNSPENEZKO
PRENTSA
TOTXOTARAKO ZIZALIAK
DEFORMAZIO MAKINA BEREZIAK**

Nafarroa Etorbidea, 31 Tfnoa 79 55 00 Telefax 79 03 97
ARRASATE

BIET

GOZOKIEN AUTOZERBITZUA
Bisita gaitzazu
Zeharkale estalia. ARRASATE



**URIBE-ETXEBARRIA
AROTEGIA**

*Obra-eraikuntza
Aroztegi mekanikoa*

Araba Etorbidea z/g Tfnoa: 79 15 71

**MUSAKOLAKO
OSTATUA**

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

**Gipuzkoako
Etorbidea z/g
Tfna: 79 20 50**

**ARRASATE
PRESS
astero zuekin**

YAMAHA sonora PANASONIX CEC MUSIMA
KEF Harman/Kardon ONKYO Vegas
QUAD Clener CASIO EGI
Mission baile Goodmans NAKAMICHI
HONNER BASF Ortela
Zimmerman Polytone Televes Rotel
Cyrus Fujitsu Fox MORESCINI
JAMO JBL PIONEER PHILIPS
TEAC TORQUE KELLER Ortofon JUGGS
carol Admirra
Hantarex Alpine Estrella KONIKA UHER
Tensai MELOS SHINTON
Fonestar Otalora kalea Tfnoa 79 29 09

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa: 79 71 64

ETXEBIZITZAK

- Pisua errentan hartu nahi dut edo bestela erosi. Tfnoa: 79 91 51. Nati.
- Etxebizitza salgai Arrasaten. Bizkaia Etorbidea, 16-3.solairua. Interesatuok dei 79 22 67 tfnoara.
- Merkatal lokala salgai. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 65 78 arratsaldeko 5etatik 8,30etara. (Asteartetik Ostiralera)
- Zigarrolan etxebizitza amueblatua salgai. Tfnoa: 79 08 69
- Arrasaten etxebizitza salgai. 3 gela, hall-a, sukaldea, bainugela: 70m². Trastelakua: 15m². Interesatuok dei 79 85 39 telefonora.
- Alokatzeko pisu bila. Tfnoa: 55 33 20 (Antonio)
- Ikasleak pisu bila. Interesatuok dei 55 14 43 telefonora
- Donostian, Antiguu inguruan, pisua alokairuan Uztaile, Abuztu eta Irailean. Saloia, bainugela eta telefonoa. Eguzki begira, dena kanpokaldera. Interesatuok dei 79 14 69 telefonora
- Pisua salgai. Telefonoak: 79 81 23 eta 79 63 84 Aretxabaleta (Puerta Sol)
- Altamiran garaje-plaza salgai. Tfnoa: 79 38 20
- Pisua alokairuan behar dugu Irailetik aurrera. Interesatuok dei 76 30 01 eta 79 90 36 telefonoetara.
- Uribe Auzoan pisua salgai. Ganbara eta garajearekin. Deitu 6etatik aurrera 79 49 66 telefonora.
- Donostian pisua alokatzen da uztaile eta abuztuan. Prezio interesgarria. Tfnoa: 64 33 39
- Pisua edo logela etxe konpartituan hartu nahi da errentan. Tfnoa: 79 91 50. Jon.
- Baserria erosi genuke Arrasaten edo inguruetan. Tfnoa: 79 69 66.

LANA

- Neska gazteak etxeko lanak edo umeak zainduko lituzke udan. Interesatuok de 79 88 73 Tfnoara. (Arratsaldez)
- Bi neska Abuztuan lan egiteko prest. Interesak deitu 79 49 63
- Etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko neska behar dugu Gazteizen (ahal dela Euskalduna). Ordutegia: goizeko 8etatik arratsaldeko 6etara. Tfnoa: 945/23 03 30.
- Etxeko lanak egiteko edo eskailerak garbitzeko neska heldua prest. Egunero lana egiteko, arratsaldeko 4 etatik aurrera. Tfnoa: 79 80 92.
- Bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska behar dugu. Tfnoa: 79 62 82. Arratsaldeko 7,30etatik aurrera.
- Arrasateko Udalak Obra Publikoetako Injeneru Teknikoa lanpostua bete behar du. Aurkezteko epea Ekainaren 30ean bukatuko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu Arrasateko Udaltxera. Tfnoa: 79 09 00.
- Uztaile eta Abuzturako lana egiteko neska behar baduzu, dei nazazu 79 28 81 telefonora. Edurne.

DENETARIK

- Hots, kondairazaleok! Orain dela bi hilabete Parrokiaren artxibotik eraman zituzten Parrokiari buruzko datu historiko eta apunte garrantzitsuak itzuli lehenbailen, mesedez. Material hau eraman zutenak ETEO edo Eskoriatzako Irakasle Eskolako ikasleak zirelakoan nago. Joxemari. 79 13 20.

SALEROSKETAK

- Motorra, haundixe, zaharra bada be ez dutzo importa. Merke badauketzu erosi gero. Tfnoa: 79 88 23.
- Citoen GS SS-M salgai. Interesatuok deitu 79 38 58 tfnora. Gauko 8,30etatik 10,30etara.
- Mexikoko hamakak, Indiako zeta eta zilarrezko bitxiak (tobillerak, koilarrak...) saltzen ditut. Interesatuok dei 79 15 54 telefonora. Aintzane.
- Paseozko bizikleta saltzen dut, 5 pinoi, 2 plater eta argifokua. 20.000 pta. Interesatuok dei 79 71 64 telefonora. Juanlu. (lanorduetan)
- 2 hilabetetako bi txakurkume eme erregalaten ditut. Aita Ardi-txakur euskalduna, eta ama Coollie. Oso politak. Tfnoa: 55 78 00. Joxe Javier. (9etatik 3retara)
- Micro Genie V-60 organo elektronikia. 49 notako teklatura- 8 abots polifoniko - erritmo kontrola - efektuak - nota melodiakoak eta musika laguntza, etbar... Saldu nahi nuke. Interesatuok dei 79 33 35 telefonora 8etatik aurrera.
- Saskibaloirako baloia salgai Tfnoak: 79 15 96.
- Egongela salgai. Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 79 58 02 telefonora.
- YAMAHA XJ 650 c.c BI-8727-AD KRAUSER maletakin salgai. Dei gauko 10etatik aurrera 79 80 88 telefonora. Santi.
- Puch Condor III motorra salgai. Tfnoa: 79 87 72 (arratsaldeko 7etatik 9etara)
- Opel Corsa salgai, 12.000 kilometrorekin, ia berri-berria. Interesatuok dei 76 46 48 telefonora.
- 3 txakur doberman salgai daude. Ama oso ona daukate eta aita berriz ez zen txarra izango. Bedoña auzoa. Tfnoa: 79 92 81.

†
ARRASATEN HILDAKOAK

- Santiago Arana Ezpeleta,
84 urte. Ekainaren 13an
- Rosa Arabalozza Arriola,
80 urte. Ekainaren 13an
- Manuel Sanchez Benitez,
57 urte. Ekainaren 14ean
- Felisa Dominguez Solana,
86 urte. Ekainak 18an
- Pedro Marchan Aguado,
97 urte Ekainaren 19an

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Zeharkale estaila 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik



Fubolien be ez eozein modutekue... Ferrolen-eta jokaketan ibilitekue...

Fabriken aurretik, izozteixek

Gure mutiko denporan Mundrauen bi heladero jazan: bata Teodoro, Erdiko kalien ferreterixie daukenan aittejaune eta bestie Arrantxero. Konpetentzia tremendue eukitten juen eta gure aittek Arrantxeroi ein jutzan hor Kurtzetxikin txabola bat, zuluaz. Eta, han, ba, neguen edurre batzen juen, zapal-zapal ein eta gero ha ebalten juen uran helaue eitteko. Teodoroi, pentsetan juat Udelatik ekarten eutziela. Bañe harei bidien erdixe urtu eitten jatien...

Gerra aurretuxen, fabrikie

Seguru etxakixat bañe hor gerra aurrien, 8-10 bat urte lehenau ero, gure aittek eta bere loba batek ipifii juen izotz fabrikie. Makifie norteamerikanue zuan, markaik onenetakue, bañe txikitxue, lau tonelada inguru eitten jittuan egunien. Amoniakuaz funtzionetan juan. Konpresore bat eta serpentifne jaukan eta han, gatz-uretan txapazko moldiek jarten zittuan uraz beteta eta hala ataraten zittuan blokiek Hareik moldiek ELMAN eitten jittuen. Hamabi ordu biher izeten

EUGENIO ABARRATEGI:
“Frigorifikue etorri zanian zientoka izotz-fabrikak itxi zittuan hemen”

DANTZARIXE BE UNIKUE

Hemen kontornuen etxauan Eugenio Martin Bixik eta Armengouk moduen charleston-a dantzan eitten auenik
 Obduli koziñeriek

zittuan izotza eitteko eta txanda baktokien bi tonelada inguru eitten jittuan.

Uran danak kunpliriu ezindde

Hamen inguruen be etxauan holako fabrikaik,... Oñetin jauan txikitxiki bat bañe Eskoitz, Atxabaleta, Bergara... hor ifun be ez, eta danak geurera etorri biher izeten juen eta neguen bai, bañe uran ez gaixuan nahikue emoten. Errepartiriu, bertatik fabrikatik eitten gaixuan.

Oin hamabost urte inguru itxi

Aitte hil zanian, gerra denporan, neuk hartu naixuan bañe orduen Mundraue guztiei Zerrajeriek emoten jutzan argixe eta tailler txikixek eta gehiketan hasi zienien sikutedenporan eta danontzako allegau ez eta rra! Zerrajeriek kentzen juan eta eletrizidadeik barik... ezebe ezin ein... Txarto ibillten gitzuan. Halaxe be oin hamabost urte inguru arte jarraitu naixuan eta gero saldu ein nutzien kanpotar batzui bañe hareik etxuen luzero jarraitu. Frigorifikuekin galdu zittuan horreik. Zientoka fabrikak itxi zittuan orduen hemen.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

Aspaldittik zebilen Joxe neska baten atzetik baina hain zan lotsatixa eze, etzekixen hasierako berbia zela emon be.

Noizian behin txikito batzuk gehixao jotzen zittuan, balientetze alde, baiña hala ta guttiz be larri ibiltzen zan gure mutila hasierako berbia amoten asmou ezindda. Iluntze baten tabernatik urten zeban burubide hau zerabilela:

“Gaur zoezer esan biha jotsat. Gaur bai... baiña zela hasi? zure biharreian naiz... Ez, hola ez. Zu, Maitxu, zu ta... ni ta... gure semiak eta... Ez!, ezetz, hain agudo ez. Bestela laster nok aittajauna. Ia oinguan asmatzen doten: Zu, Maitxu, zuk egindako berakazopak... Aj! Zer berakatz eta zer kipula. Berriz be nahastu nok. Ia, ia : Zu Maitxu... , zu, Maitxu... A! eta nere presentazifua. Lenengo nere presentazifua. Enfin, banajoiak dantzara. Maitxu han izango dok eta urtengo jok nahi dabenak. Hor konpon Mari Anton. Horraittio, noizbaitt nereganatzen bajuat orduan bai izango dala nere neria. Noizbaitt esan juat? Ez, gaur bertan. Kofio! Hoixe falta giñuan bakarrik.

Burua holakoz beteta Untzagako plazara urreratu zan Joxe. Han zeuan Maritxu korro ertzian bakarrik, lagunengandik libre. Hau zan Joxen aukeria. Urreratu jakon eta esan ez esan egon zan apur bat. Maritxu ikusten zeban bakoitzian eztarrixa sikatzen jakon eta hankak dardaraz hasten. Azkenian etsi etsixan hasi zan:

- Zu, ni Joxe naiz.

- Ene, ba ni enaiz Joxe -soltatu zotsan Maritxuk.

Joxe gizajoak, nun zeuanik pe etxekixela alde egin zeban belarriak apal apal egindda.

Juan Martin Elexpuru



URONDO elektrizitatea.

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoaik
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak



JESUS ELKORO

BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886

ARRASATE



Kaxarranka dantza plazan

Epelde

O rain bezalaxe lehen ere makina bat gauza egiten zen San Juanetan, Epelderren erretratu honetan

ikus dezakegunez.

Hemen ditugunak sasoi beteko arrantzale lekeitiarrak dira, kaxarranka izeneko dantza egiten. San Pedro egunean, Lekeitio eta Do-

nostiako portuan egiten den dantza.

Aurten ere, dantza hau ez bada ere, izango dugu zer ikusirik balkoi eta leihoetatik.

Urtebete itxaro behar herriko plazan horrelako ikuskizunik berriro ikusteko, aurtengo jaietan Biterira joan beharko dugu eta.

— *Fotozahar sariketa* —

Hil honen zein egune-tan ospatu zen Haur Dantzarien Eguna?

— *Joan den asteko irabazlea* —

Sahatsa Jauregi, arrasatearra.
("Sebero Altube enparantza 1977-2-19ean inauguratu zen")

Egundoko Walk-mana
-VIGURI Bideo Klubak emana-
eskuratu nahi baduzu,
aste honetan bertan
postala bidali gure helbidera,
erantzuna emanez eta zure adina adieraziz:
Zeharkale estalia 1,1.b Arrasate



...eta gainera

VIGURIk

hilaren bukaeran
14'ko koloretako

ITT **NOKIA** markako TELEBISTA BAT

zozkatuko du hileko parte hartzaile guztien artean

Iturriotz 33 eta Zerkaosteta 24. Arrasate

PROMOCIONES MARKULETE, S.A.

NABE INDUSTRIALEN

SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.

*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95



Arratoiaren aurkako kanpaina

Arrasateko Udala

Arratoiaren aurkako zerbitzu intesiboa egiten ari da

Mesedez, udalerriko auzotar guztien laguntza eskatzen dugu. Horretarako arau hauek bete behar dira:

1. Etxeko zaborrak **BEHAR DEN MODUAN ITXITAKO POLTSETAN** utzi, zerbitzu hau egiteko ofizialki ezarri diren egunetan eta ordutegietan.
2. **EZ BOTA HONDAKINIK** bide publikoan, orubeetan, barruko patioetan, etb.etan.
3. Auzokoek **INGURU HAUETAN EDOZEIN ARRATOIGUNE** ezagutuz gero, Enpresa horri jakin eraztea eskatzen dugu.
4. Kanpaina honetan emaitza egokiak lortzeko partikular eta enpresei **DOANEKO AHOLKULARITZA EMANGO DIEGU.**

Kanpainaren arrakasta herritar guztien onerako da, beraz laguntzarik handiena eskatzen dugu.

Lagundu Udalari eta CESPA, S.A.ri.

Telefonoak: CESPA 79 34 33

UDALA 79 09 00

Eskerrik asko!

Hiritar batekin ari nintzen...

Euria ziharduenean berbetan aritzen ginen, hiri hitzal haien magalean...

... eta egun hartan ZUK ESAN ZENIDAN:

— Nik “bizi” dudan izakiak ez du sentitzen. Herdoildua dago iadanik “bere” bihotz akitua. Desirak izotz bihurtu zaizkiola uste du; ez dela, ez naizela. Orain ni naiz bakarrik sentitzen dena, ez dago inor, denak joan zaizkiola uste du; ez dela, ez naizela. Orain ni naiz bakarrik sentitzen dena, ez dago inor, denak joan zaizkit eta, oroimenak, lehena... eta “bera” ere.

—eta NIK IDATZI NUEN:

Denak joan bazaizkizu norbait sartu zaizulako izango da.

Orduz geroztik ez dugu gehiago hitz egin, iadanik ez duzulako berba egiten, ez zure ezpaineak barre tantto bat isurtzen, ez sikiera sufritzen; soilik atzera egiten bait duzu. Eta gauera 13. AUTHOBUSEAN sartzen ikusten zaitut, zuk bizi duzun izaki arrotz hori aurrez-aurre agertzeko zain eserita egongo zarela jakinda, lizunki laztantzeko desiran zabiltzan Herio hori.....eta bien bitartean 13. AUTHOBUSA hilobiaren itxuran Herio-Hirian murgilduko da.

Mikeldi Bengoa

Lore lurrindegia

Goi-kosmetika eta lurringintzan espezializatua

Olarte kalea, 10 Tfnoa: 79 14 99

UDALA

Auto-eskola

**Minusbaliatuentzako
klase bereziak**

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

■ **Hauteskunde gaua:** Arratsaldeko zortzietan hasi eta goizeko ordubatak arte behintzat, gaurkotasun eta bizitasun handiko irratsaioa eskaini ziguten Odile Kruzeta eta bere taldeak. Urte gutxi dela euskara hutsean pentsa ezina ematen zuen saio borobil horietakoa. Eusko Irrati Telebistak enkargatutako sondeoarekin hasi, beste komunikabideek enkargatutakoekin konparatu, "Aste politikoa aztertzen" irratsaioko komentarien uste eta eritziak, partidu politikoen egoitzetan zeuden erreportarien interbentzioak, datuak, portzentaia, puntuak, komak, galtzaile eta irabazleen ahotsak... en fin, gau bereziari zegokion goi mailako irratia. Zorionak!

■ **Eibarko Bizikleta:** Akaso aurtengoak ez zuen partehartzailegorik distiratsuen izango, baina ETBk eskaini dizkigun etapa bukaera gehienak oso interesgarriak izan dira. Ikusgarrienak Elgeta eta Arratekoa, baina azkenaurrekoari ere ez zitzaion dramarik falta izan, helmugarako kilometroa pasatxo falta zela Jokin Mugika jausi zenean. Kamara hantxe zegoen. Ber ar zen lekuan.

■ **Udako programazio berria:** Ailegatu dira uda parterako programazio aldaketak Euskadi Irratira. Orohar, gehitu egingo da eguraldiari buruzko informazioa. Goizeko zortzi t'erdietan, hamaika t'erdietan eta ordubata t'erdietan saio bereziak egingo dira, pronostikoak eta hondartzen egoeraren berri emanez. Ordubata t'erdiko saio horren ostean ordu erdiko musika tarte izango dugu. Pello Zabalaren "Klasikoak gaur" gaueko bederatzietara pasatuko da, "Iturri onetik" saioaren lekua hartuz. Hau desagertu egingo da uda partean, eta arratsaldeko hiruretatik lauetara "Udagiroan" irratsaioa etorriko da, elkarrizketa errazak, festen berriak, musika eta patxada eskaini asmoz. On dagizuela.

■ **"You are so handsome, Amatiño!":** Bi emakume guztiz desberdinak ekarri zizkigun Amatiñok sasoi honetako azkenaurreko "Laino guztien azpitik" saiora. Claire Noblia, Baionako zinegotzia, ekimen eta nortasun handiko andra, Enbata taldeko kide eta Seaska ikastolen mugimenduko sortzaile eta lehendakaria izan ondoren, zentru-eskuineko zerrendetan hautatua. Bestea, "Marionetas" abesti eurobisiboa gogoratzen duzuenon aspaldiko ezaguna: Sandie Shaw abeslari britainiarra urte luzeetan ahanzturaren itsasoan galduta egon eta gero, beti bezain lirain eta umoretsu pantailaratu zaiguna. Interpretariaren arazoak zirela eta, Amatiñoren ahaleginak saritu nahiz edo, "you are so handsome!" maitekorra xuxurlatu zion, "hain zara ederra!", alegia. Eskerronekoa bera.

Joxe Aranzabal




gusto baduzu

■ **Denborapasa,** ostiralean, 15,10etan. Maulen grabaturikoa, Jules Casenave, pastoralaren egilea-rekin elkarrizketa. Eta bost erreportai: Irurin hilaren 25ean izango den Euskal Herriko abeslarien lehiaketaren finala; Maskaradaren estreño berria; Euskara ikasteko ikastaro intentsiboak; Tennis ikastaroak eta San Juan gaua Urdiain-en. Horretaz aparte, ohizko agenda, liburuen gomendioak, etab.

■ **Funtzioa,** ostiralean, 21,00etan. Asteko gonbidatua Txaro Arteaga, Emakume Institutoaren Zuzendaria, dugu. Teok eta Charlesek aste kultural bati buruzko schetck-a eskeiniko digute. Alde musikalean, Ruben Datás perkusionista, eta Jimmy Rios mimoaren aktuazioa.

■ **"Andregaiaren aita"** ("Father of the bride", 1950). Igandean, 15,25etan. Zuzendaria: Vincente Minelli; Antzezleak: Spencer Tracy, Joan Bennett, Elizabeth Taylor. Banks familiak Kay eta Buckley Dunstan-en arteko ezkontza txarto hartzen du. Laster bi familien arteko arazoek bikotearen harremanetan eragina izango dute.

bideoak



Mad Max: Hona hemen George Miller zuzendari australiarak Mad Max seriearen hirugarren filma, "Trumoiaren kupulaz haraindi". Patuaren bila dabilen gerlari bakartia (Mel Gibson), eta inoren babesik barik heroi baten zain dagoen haurleinua, elkartu eta aurre egingo diote basamortuaren bihotzean dagoen Truke hiriko andreaki (Tina Turner abeslaria), izeba Almari alegia.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)

4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

32

2	7	6	
	6		8
9	2	1	3
2	6	3	9
7		4	5

Aritgrama

Markatutako puntutik hasita, saia zaitez emandako kopurua lortzen, horretarako ahalbide hauetaz baliatuz:

- * Aldeetara zein gora eginez, BATU
- * Behera eginez, KENDU
- * Zeharka behera eginez, ZATITU
- * Zeharka gora eginez, BIDERTU

(Soluzioak 19. orrialdean)

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Utzi lagun hori zuregana hurbil dadin, biontzat onuragarria izango da eta. Harrozeria alde batera utzi, momentu honetan garrantzitsuena hitz egitea bait da.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Ustekaberen batek planak aldatzera behartuko zaitu, bai eta zure inguruko norbaitek ere. Zuk espero baino askoz hobeto izango da, eguzkia eta Venusek ez dizute huts egingo.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Zure lagunek ematen dizkizuten aholkuak jarraitu beharko zenituzke. Hartu duzun bidetik jarraitzen baduzu berehala konturatuko zara oker zabiltzala.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Udan sartzeak indar berri batez beteko zaitu, edozein gauzetarako prest sentituko zarelarik. Zure buruari mugarik jarri behar badiozu zuri bakarrik dagokizu erabakitzea.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Irrifar xarmagarri horretaz baliatzen zara nahi duzuna lortzeko, baina orain engainatu nahi duzunarekin ez dizu balioko. Garbi jokatu edo haserretu egingo da.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Ez da hasieratik zeure buruari proposatu zeniona, baina azkenean lortu duzu. Asko pentsatu duzu aukeratu baino lehen, baina konturatuko zara pena merezi zuela.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Ezin duzu geldik egon, oraindik batetik irten gabe, beste batetan ari zara sartzan, dena den, eguzkia hile osoan zurekin izan duzu eta indar goxo honek uda osoan iraungo dizu.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Gauza guztiei errez aurkitzen diezu irtenbiderik baina orain zabilzaneatik ez dakizu nola atera. Dena den, ez duzu aholkuen beharra, gauza zara bakarrik ibiltzeko eta.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Umore txarrean bazabiltza, giroz aldatzea komeniko litzaizuke baina ez bestek konplikatu. Gorabehera horiek ez dira batere onak, gainditu egin beharko zenituzke.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Ilargi bateak asko nahastu ditu zure baitan, beti argi eta garbi izan duzuna ilunduz. Hau gairiditzeko San Juan gauean agertuko da izugarritzko aukera. Ez ezazu galdu!



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Baliabide handiko pertsona izan arren, daramazun zama hori ezin duzu gainetik kendu. Badakizunez, horrelako arazoak ezin dira diruarekin konpondu.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Gorriak ikusi dituzu baina ekaitza pasatu da. Nahiz eta oso larri ibili esperientzia horrek asko irakatsi dizu Pozik egon zaitezke.

👉 Enplegua sustatzeko Udalaren 1989ko programa

Udal Gobernu-Batzordeak Ekainaren 12an hartutako erabakiaren arabera, aurtengo ekitaldian baliteke, Udalaren eskaera Foru Aldundiak eta INEMek onartzen badute, Udalako ondoren aipatzen diren kontratuak egitea, batzuk egun erdikoak eta beste batzuk egun osokoak, kasu guztietan 6 hilabetekoak.

LANPOSTUAEGINBEHARRA

- 1 Ekonomilari Lizentzia fiskala aztertu
- 2 Ludotekari Ludoteka antolatu
- 2 Bibliotekari Liburuak sailkatu
- 1 Bibliotekari Haur Liburutegia dinamizatu
- 1 Administralari Kartografia mekanizatu
- 2 Gizarte-langile 3. adineko ekintzak
- 1 Maisu Udalako Ingurugiro Eskola antolatu
- 1 Administralari-Laguntzaile .. Kontsumitzaileen aldeko ekintzak
- 1 Gizarte-Laguntzaile Eskoletako zenbait lan
- 1 Gazte-Animatzaile Gazteen Informazio-Bulegoa antolatu
- 1 Obretako ofizial Zerbitzu Teknikoei lagundu
- 5 Lorazain Udal lorategiak eta berdeguneak zaindu
- 5 Igeltsari Mantenimendu-lan errazak
- 4 Pintore Hiri altzariak pintatu
- 1 Delineante Zerbitzu teknikoei lagundu
- 1 Indust. Inj. Tekniko Zerbitzu Teknikoei lagundu

LANPOSTUAEGINBEHARRA

- 1 Nekazaritzako Inj. Teknikoa Mintegia martxan jarri
- 2 Iturgin Ur-lantaldeari lagundu
- 1 Elektrikari Eletrizitate-lantaldeari lagundu
- 2 Kazetari Arrasate Press
- 1 Maketista Arrasate Press
- 1 Publizista Arrasate Press
- 1 Hezkuntz Teknikari Hezkuntza Batzordean Ihardun
- 4 Gorputz-Hezkuntzako Monitore ... Eskoletako Kirol kanpaina
- 1 Aparejadore Saneamen. eta auzo. proiektuak egin
- 2 Udaltzain-laguntzaile Isurtegien zainketa egin
- 2 Kazetari Arrasateko Telebista
- 2 Ikusentzunezko teknikari Arrasateko Telebista
- 1 Goi mailako titulodun Herriko zerbitzuen egoera aztertu
- 1 Goi mailako titulodun ... Herriko Ind. lurzoruen zentsua egin
- 1 Goi mailako titulodun Arrasaten lehen sektore aztertu
- 1 Goi mailako titulodun Hezkuntz mailako azterketa

a.eme.interiores

GARIBAI 9
20 500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tlfnoa: 943-791503
Telefax: 791489

barrukaldeko arkitektura
etxeke ekipamendu osoa
merkatal lokalen instalazioa

ARKITEKTO TEKNIKOA ETA APAINZTAILE TITULATUAK DAUZKAGU